

2007ko APIRILAREN 4ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta zazpiko apirilaren lauan, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- UEMA. ESTATUEN ALDAKETA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko Batzar nagusiak, 2004ko urriaren 16an egindako bilkuran, bere estatuen ondorengo artikulua aldatzea onartu zuen:

1. artikulua.- UEMA osatzen duten herrien zerrenda eguneratzea.

4. artikulua erredakzio berria honako hau da:

- 1).- UEMAren helburu orokorra da euskara zerbitzua eskaintzea bertako partaide diren udal administrazioen barne jardura zein udalerrietako gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. Euskara zerbitzuak udaletako erabilera planak diseinatu eta udal langileak trebatuko ditu.
- 2).- UEMAko udalerrietan kultur ekitaldiak eta jaialdiak antolatzeko kultur zirkuitua jarriko du martxan. Horretarako, kultur zerbitzua antolatuko du mankomunitateak.
- 3).- UEMAko udalen garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko aholkularitza zerbitzua eratuko du mankomunitateak.

- 4).- UEMAko udalerrietako merkatarien zerbitzua hobetzeko zerbitzu teknikoa antolatuko du mankomunitateak.
- 5).- Etorrinen integrazio ahalbideratzeko planak diseinatuko ditu mankomunitateak eta horretarako zerbitzua antolatuko du.
- 6).- Gainontzeko helburu eta zerbitzuei dagokienez, legediak mankomunitateei ematen dizkien eskubide eta eskumenen jabe izango da.
- 7).- Bertako partaide diren udalen ahaleginak emaitza maila gorena izan dezaten, UEMAk hauen ekintzak koordinatu eta beharrezko laguntza teknikoa eskainiko die.

23. artikulua.- 1. eta 2. puntuak idazkera berria izango dute:

- 1.- Azken udal erroldaren arabera, bere biztanlegoaren %70etik gora euskalduna izatea.
- 2.- Udal eta udalerrri mailan euskaraz bizitzeko konpromisoa.

Aldi baterako erabakiak.- Bigarren erabakiaren azken esaldia kentzea.

Kenduko den esaldia hau da: zeinaren lana UEMA sortu bitartean BPZ zerbitzuak bete duen.

UEMAko udaletako iragarki taulan hilabete egon eta gero, Bizkaiko Foru Aldundira bidali da eta legezko hilabeteko epean ez da inongo oharrik jaso.

Hori guztian kontuan hartuaz, Udalbatza honek, UEMAko estatuten aldaketaren proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren "quorum"arekin, aho batez onartu da.

3.- LIZARTZAKO HILERRIA EMAKIDA BIDEZ KUDEATZEKO KONTRATUA

Landarri S.L.k Lizartzako hilerrian ustiapen eta kudeaketa emakida bidez eramateko kontratu proposamena aurkeztu du.

Proposamenak, honela dio:

LEHENENGO.- HILERRIAREN USTIAPENA

LANDARRI, S.L.k hitz ematen du:

- .- Udal hilerrian egingo diren ehorzketak eta gorpuak hilobitik ateratzeak egingo dituela, hau da, hilotzen ehorzketa, hil hondakinak ateratzea, hilerri barruan egin beharreko leku aldaketak, etab., eta zerbitzu on eta txukun bat emateko egin beharreko lan guztiak.
- .- Lehen aipaturiko lan guztien administrazio bideraketa eta ardua bereganatuko duela, eta lan horiek guztiak agerian geratuko dira dagokion udal administrazio atalean.
- .- Hilerrian egingo diren ehorzketa, hobitik ateratze eta lekualdaketa lan guztien berri emango zaio Udalari, modu informatioan (diskete edo cd moduan adibidez).

BIGARRENA.- MANTENIMENDUA

Enpresa esleituaren ardua izango da, belar mozketa eta hilerriko garbiketa lanak orokorrean egitea. Beraz, mantenimendua eramatea, hilerria ahal den baldintza onenetan egongo delarik.

Udalak aldiz, hilerri kanpoan derrigorrez zabor ontzi handi bat jarri beharko du garbiketaren ondorioz sortutako zaborrak botatzeko. Bere ardua izango delarik jartzea, eta beteta dagoenean kentzea.

Hilerrian sor litezkeen matxura guztien konponketak, teilatu, eraikin, ate edo antzeko guztien konponketak, Udalaren ardua izango dira, eta ez Landarri S.L. enpresarenak.

HIRUGARRENA.- SERRAIL ALDAKETA

Udalak, zerbitzua esleiatzen duenean, hilerriko sail guztietako giltzak emango dizkio LANDARRI S.L.-ri.

Udalak dituen giltzak gaizki erabiltzen baditu, hori ez da esleipenduna den enpresaren ardura izango.

LAUGARRENA.- ZAINKETA ETA IKUSKARITZA

Udalaren ardura izango da hilerria ireki eta ixteaz, onartuta duen orduetan. Hilerriko atean iragarki bat ipiniko du ordu horiek adierazteko.

Udala izango da hilerriko zainketa lanen arduraduna, eta esleipendunak ez du hilobietan edo horietan jartzen diren elementuetan hirugarren batzuk egingiko lapurreta edo matxuren ardurarik izango.

Halaber enpresa esleipendunak ez du ardurari izango, herritarrek jarritako hilarriak irekitzerakoan hondamenak sortzen badira.

Zerbitzua zaindu, ikuskatu eta esku hartzeko ahalmena duten udal zerbitzuko langileek eskubide osoa izango dute bertara inongo arazorik gabe sartzeko. Eskubide bera izango dute, halaber, hilerri barruan dauden linea, hodi eta gainerako zerbitzuak zaindu eta konpontzeko ardura duten funtzionario edo langileak.

BOSTGARRENA.- LAN BEREZIAK

Hileta-zerbitzua emateko egin beharreko lan osagarri guztiak egingo ditu enpresa esleipendunak (zuloak zigilatu, horma hilobi eta hezurtegiak itxi ...)

SEIGARRENA.- EHORZKETA-ESKUBIDEAREN EMAKIDA-EPEA AMAITU ONDOREN, GORPUTZA HOBITIK ATERATZEKO LANAK

Landarri, S.L.-k hitz ematen du, Udalak horrela onartzen badu, dagokion ehorzketa-eskubidearen emakida-epea amaitzen denean (10 urte), gorpua edo gorpuzkiak hobitik aterako dituela. Edo epe hori amaitu gabe egonik ere, senideek eskatzen badute, horrela egingo dela.

Gorpuak hobitik ateratzeko lan horiek beharraren arabera egingo dira, lur-zati berean egin beharreko ehorzketa kopuruak ala eskatzen badu, eta hilobiaren zenbakia eta antzinasunari eutsiko zaio.

Udalak eskatzen dituen exhumazioak, udalari kobratuko zaizkio.

ZAZPIGARRENA.- LANGILEAK

Enpresa esleipendunak hitz ematen du menpean izango dituen langileak edo geroago kontratatzen direnak, behar diren uniformeak jantzita arituko direla.

ZORTZIGARRENA.- ZERBITZU IRAUNKORRA

Enpresa esleipendunak telefono bidezko arreta etengabea eskainiko du, 24 orduz, ehorzketa eta hobitik ateratze lanetarako, eta jendearen arretarako.

BEDERATZIGARRENA.- TASAK

LANDARRI S.L.-k ehorzketa eta gorpuak hilobitik ateratzeko lanen administrazio bideratze eta ardura bereganatuko du; egindako zerbitzuen lana familiarik kobratuko zaiolarik. Urteko kanona eta hilerriko garbiketa eta mantenimendu tasa ezik (3 aldiz urtean, hori Udalari kobratuko zaio).

Honako hauek dira egindako lanengatik Landarri SL-k kobratuko dituen kopuruak:

EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA	NITXOAn	Lan egunean	220,98 €
EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA		Jai egunean	258,55 €
EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA	PANTEOIA n	Lan egunean	319,50 €
EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA		Jai egunean	373,81 €
EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA	LURREA n	Lan egunean	319,50 €
EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA		Jai egunean	373,81 €
NITXOA IXTEKO TAPA			34,20 €

Kopuru hauek BEZ barne dute.

Lan-egunak : Astelehenetik ostiralera

Urteko ordainketa bat egingo da administrazio gastuetarako, 24 orduko etengabeko zerbitzuarengatik, kontsultak, etabarrengatik : 863,20 €

Hilerriko belar mozketak egiteko behar diren lan tresnak, eskulan, makinaria, etabarrengatik, Landarri S.L.-k lana egiten den aldiro, 1.200 € kobratuko dizkio Udalari (urtean 3 aldiz).

Honako kontratu honek irauten duten bitartean, esleipendunaren prezioak urte amaierako eguneratuko dira, KPI-aren arabera ; EUSTAT-eko Gipuzkoako Lurralde Delegazioak ematen dituen arabera.

HAMARGARRENA.-

Kontratu honetan arautu gabeko edo aurreikusi gabeko guztian, ekainaren 16ko 2/2000 Errege dekretu Legeak onartutako Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Testu Bateratua erabiliko da, eta bereziki, II. Titulua, zerbitzu publiko horien kudeaketarako kontratua arautzen duena.

Gainera, aplikaziokoaa den hileta policia sanitarioaren araudian preskribatutako baldintzekin eman beharko du esleipendunak kontratu honen helburu den zerbitzua, eta zehazki, urriaren 19ko 202/2004 dekretua. Dekretu

honen bidez onartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Hildakoen Osasun Zaingoaren araudia.

HAMAIKAGARRENA.- LAN TRESNAK

Udaletxeak enpresa emakidunari, hilerriko lanak egiteko behar diren lan tresna guztiak utziko dizkio.

HAMABIGARRENA.-

Landarri S.L. enpresakoa ez den edozein pertsonak, ezingo du inongo ehorzketa, exhumazio edo antzerako lanik egin hilerrian.

HAMAHIRUGARRENA.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Honako kontratu honek hamar urte iraungo du, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita. Beraz, 2017ko maiatza bitarte.

Lizartzako hilerriaren ustiapen eta kudeaketarako, LANDARRI S.L.k aurkeztutako proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Era berean eta LANDARRI S.L.-rekin sinatu behar den kontratua gauzatzeko, Udaleko Alkate-Lehendakaria den Joseba Egibar Artola Jaunari ahalmenak ematea, aho batez onartu da.

LIZARTZAKO HILERRIAN HILETA ZERBITZUAK ERREGULATZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

Aurreko puntuan onartutako erabakiaren arabera, beharrezko ikusten da, Lizartzako Hilerrian Hileta Zerbitzuak erregulatuko dituen Udal Ordenantza, eta Hileta zerbitzuei eta Udal Hilerrian emakidak eman eta erabilera pribatiboak ematearen Fiskal Ordenantza Arautzailea ezartzea onartzea. Hau da proposamena:

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Lizartzako Udal Hilerria zerbitzu publiko bati lotutako jabari publikoko ondasuna da eta, haren titularra Udala izanik, berari dagokio hura administratu, zuzendu eta zaintzea, bestelako agintaritza eta organismoen eskumeneko alderdietan izan ezik.

2. artikulua.-

Hilerraren administrazio, zaintza eta zuzendaritza eginkizunen ihardueran, Udalari honako hau dagozkie:

- a) Hilerria nahiz bertako eraikuntzak, zerbitzuak eta instalazioak antolatu, artatu eta egokitzea.
- b) Partikularrei baimena ematea hilerrian edozein motatako obrak edo instalazioak burutzeko, nahiz horiek zuzendu eta ikuskatzeko.
- c) Emakidak eskustea eta edozein motatako hileta eskubideak ezagutzea.
- d) Legez ezartzen diren eskubideak eta tasak jasotzea.
- e) Emandako edo etorkizunean ematen diren osasun eta higiene neurriak betetzea.

II. TITULUA

PERTSONALA

3. artikulua.-

Hilerriko pertsonala funtzionari, lan-pertsonal kontratatu edo aldi baterako pertsonala izan daiteke, legez ezarritako terminoetan. Haren eskubideak eta betebeharrak Ordenantza honetan eta kasuak kasu

aplikatzekoak diren xedapen orokorretan xedatutakoaren bidez erregulatuko dira.

4. artikulua.-

4.1. Lizartzako Udalaren eskuduntza da:

- a) Hilerriko departamendu guztiak beti behar bezalako garbitasun, artapen eta ordena egoeran egon daitezen zaintzea.
- b) Hileta zerbitzuetarako adierazitako orduan hilerriko ateak ireki eta ixtea, hilerriko giltza bat gordez Lizartzako Udaleko eskudun organoak beste gauza bat agintzen ez duen bitartean.
- c) Ehorzketa lizentziez arduratzea.
- d) Ehorzketa zedulak sinatzea eta, aurreko atalean aipaturiko lizentziekin batera, hileta zerbitzuei itzultzea.
- e) Dagokion baimenik gabe, gorpuak eta objektuak hilerrian sartu edo ateratzea galeratzea.

4.2. Hilobiratze lanak burutuko dituen pertsonalaren eskuduntza izango da:

- a) Beharrezko dokumentazioa aurkeztu ondoren, hobiratzea, desobitze, lekualdaketa eta bestelako zerbitzuei ekitea.
- b) Partikularrei edozein obra egiteko udal lizentzia aurkez dezatela galdatzea.
- c) Dagokion udal organoak eta gainerako agintari jurisdikzionaletan emandako agindu eta jarraibideak betearaztea.
- d) Hilerriaren administrazio egokirako beharrezko diren eginbeharrak burutzea.

5. artikulua.-

Ez Udalak, ez horren ezein organok, ez eta pertsonalak ere, ez dute inolako erantzukizunik beren gain hartuko hirugarrenek hilobietan eta hilerrian ipintzen diren objektuetan egin ditzaketen hondaketei dagokienez, indarrean dagoen legerian aurrikusitako kasuetatik kanpo. Halaber, nitxo edo hezurtegiren

bat irekitzeko edo, partikularren eskariz, edozein desorbitze egiteko unean hilerriko pertsonala ez da hilarriak edo plakak haustearen erantzule izango.

III. TITULUA

HOBIRATZEEN ERREGIMENA

6. artikulua.-

Hobiratzeak indarrean dauden legezko xedapenen arabera egingo dira. Ezinbesteko betebeharra da hildakoa Erregistro Zibilean inskribatzea, hila egotearen ezaugarri nahastezinak daudeneko mediku ziurtagiriarekin. Dokumentu hau udal bulegoetan egiaztatuko da. Ehorzketa ez da hildako unetik hogeita lau ordu igaro bitarte gauzatuko.

7. artikulua.-

Inolaz ere ezingo da gorpu bt beste baten hondakinekin zerraldo berean lurperatu, Gorpuen Osasun Jagoletzari buruzko Erreglamenduaren 11. artikuluan (uztailaren 20ko 2263/74 Dekretua) jasotako kasuak salbu.

8. artikulua.-

- a) Ehorzteko eramaten den gorpurik ez da utziko ehortzi gabe, lege tramiteak bete baldin badira eta ondorengo betebeharretik bat gutxienez betetzen baldin bada:
 - Lizartzako izatea.
 - Lizartzan erroldatuta egotea.
 - Urte luzeetan Lizartzan bizi izan bada eta familiaren zati handi bat Lizartzan bizi bada eta gainera gurasoak ere Lizartzan lurperatuta baldin badaude.
- b) Txiroek dohainik ehortziak izateko eskubidea dute, ehorzketa gastuak heriotza izan den herriko Udalaren kontura izanik eta Foru Aldundiaren

mendeko edo babespeko establezimendu batean izan baldin bada, administrazio horrek hilkutxa jartzeko obligazio subsidiarioa dauka.

9. artikulua.-

Ehorzketak lurrezko hobietan edo nitxoetan, koerlatiboki zerrendatuak izango direnak, eta egiten diren hobiratzeak orden hori errespetatuko dute.

Panteoiaren edukierak ahalbideratzen duenean, hilerrian dauden panteoietan hobiratzeak gauzatu ahal izango dira.

10. artikulua.- Panteoiak

- a) Hilerriaren barrutiak duen azalera murriztua dela kontutan hartuz, ez da panteoi berririk eraikitzea baimentzen.
- b) Panteoia, lur eman ondoren, itxi egingo da berehala.
- c) Panteoia konpontzeko, panteoiaren titularrak baimena eskatu behar dio Udalari. Titularrak baimena eskuratu ondoren konpondu ahal izango du bere panteoia.

11. artikulua.- Hilarriak

Hobiak estaltzen dituzten hilarriak, euren ezaugarriei dagokienez, ezaugarri hauetakoa izan behar du:

- Granito Beltza izan behar du.

- Neurriak: 74 x 66,5

Lurrezko hilobien hilarriak antzeko ezaugarrietakoak izatea aholkatzen da. Aurrez jarriak daudenekiko hilarrien ezaguarrein edozein aldaketarako, aurrez Udalari baimena eskatu beharko zaio. Emandako epea amaitu ondoren, jarritako guztia kentzera jo beharko da.

Zehaztapen hori ez betetzeak, Udalari ahalmena emango dio, apaindura arrazoiak direla eta, exekuzio agindua emateko.

IV. TITULUA

DESOBITZEAK ETA LEKUALDAKETAK

12. artikulua.-

Gorpuen desobitzeak eta lekualdaketak Gorpuen Osasun Jagoletzari buruzko Erregelamenduaren arauaren arabera eta hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik egingo dira.

13. artikulua.-

Desobitze eta lekualdaketa guztiak, beharrezkoa den kasuan, dagozkion osasun agintaritzek luzatutako baimenarekin egin beharko dira.

14. artikulua.-

- 1.- Beste hilerri batean hobiratzeko asmoz gorpu bat desobitu ahal izateko, dagokion hilobiaren titularraren eskaera beharko da, dagokion osasun agintaritzaren baimenarekin batera.
- 2.- Edozein modutara ere, gorpuak edo honakinak Udalak hala erabakitzen duenean desobituko dira, beti ere hobiratuak izan zirenetik hamar urte igaro direnean.
- 3.- Aurreko atalean jasotako desobitzeak piskana piskana egingo dira, hobiratze berrien aurrean sortzen diren premien arabera, hilobien zenbaki korrelatiboari eta zahartzaroari erantzunez. Edozein kasutan familiartekoei aurrez jakin erabakiko zaie, beraien nahiak agertu ditzaten. Guzti hau hilerri aretoaren azalera murriztaren eraginez.

15. artikulua.-

Lurperaturik 10 urte bete ez dituzten gorpuen desobitze kasuan, beharrezko diren sanital neurriak kontuan izan beharko dira.

V. TITULUA

HILERRIAREN BARRUKO ORDENA ETA GOBERNUA

16. artikulua.-

Hilerria Udalak finkatzen duen ordutegian egongo da irekita, urte-sasoi bakoitzaren egoeren arabera.

17. artikulua.-

Aparteko zerbitzu berezian eramaten diren gorpuak salbuetsiz, hilerria jendearentzat irekita egoteko adierazitako ordutegitik kanpo ez da gorpurik onartuko. Ordutegi horren barruan tarte bat ezarri ahal izango da eta, harrezkeroztik, hilerria ixten den ordura arte, ezin izango da ehorzketarik egin.

18. artikulua.-

Obrak exekutatzeko materialak finkatutako ordutegian besterik ez dira sartuko.

19. artikulua.-

Gauean zehar espreski debekatuta dago ehorzketak egitea eta hilerrriaren barrutian edozein motatako lanak burutzea, behar bezala justifikatutako aparteko kasuetan izan ezik.

20. artikulua.-

Udal zerbitzu eskudunek hilerriko artapen eta garbiketa lan orokorrak zainduko dituzte. Hilobietan nahiz objektu eta instalazioen garbiketa eta artapen lanak partikularren kargura izango dira.

Partikularrek hilobiak garbitu eta artatzeko beharkizuna betetzen ez badute eta narriadura egoera antzemanaz gero, Udal zerbitzuek eskubide afektatuaren titularra errekerituko dute, eta hark lanak adierazitako epean

burutzen ez baditu, Udalak subsidiarioki egin ahal izango ditu. Kasu horretan, kostua derrigortuengan jasanaraziko litzateke.

IV. TITULUA: HILOBIRATZE ESKUBIDEEZ

I. KAPITULUA.- HILOBIRATZE ESKUBIDE ARRUNTA ETA DENBORALDIRAKO HILOBIRATZE ESKUBIDEA

21. artikulua.-

Gaur egungo hilerri aretoaren ezaugarriak kontutan izanik, bi aukera izango dira:

- .- Hilobiratze Eskubide Arrunta (Lurreko hilobiratzeak)
- .- Denboraldirako Hilobiratze Eskubidea (nitxoak)

- Lurreko hilobiratze eskubide arrunta 10 urtetako gehieneko epe batez, hobiratzea gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Epea igarota, familiartekoei aurrez abisatu ondoren, eta biharamoneko hurrengo hilabetean senditarrek hondakinak erreklamatzeko ez badituzte, Hilerriko Zerbitzuek horiek desalojatzera joko dute.
- Nitxoko denboraldirako hilobiratze eskubidea 10 urtetako gehieneko epea batez emango da, hobieratzea gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Epea igarota, familiartekoei aurrez abisatu ondoren, eta biharamoneko hurrengo hilabetean senditarrek hondakinak erreklamatzeko ez badituzte, Hilerriko Zerbitzuek horiek desalojatzera joko dute.

22. artikulua.-

Lurperatze eskubide hauen uztea ez da saltzekoa, gorpua 10 urtetako epe batez hilobian egoteko eskubidea (Jabari titulartasuna Udalarari dagokio soilik, 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik).

23. artikulua.-

Hilobiratze eskubideak pertsona bakar bati emango zaizkio beti, hilobia erabili behar den pertsonaren hileta gertatu ondoren.

24. artikulua.-

Hileta eskubide guztiak dagokion errejistro liburuan inskribatuko dira eta emakidak bidezkoa den titulua luzatu bidez egiaztatuko dira.

25. artikulua.-

Aurrikuspen aseguruaren konpainiak eta antzekoak ezin izango dira inola ere emakiden edo bestelako hileta eskubideen titular izan. Beraz, haiek ituntzen dituzten poliza edo kontratuen klausulek ez dute Udalaren aurrean ondorioz izango, aseguratuari dagokion hileta eskubidea ordaintzeko beharrezko kapitala ematea ez den bestelako eskubiderik betetzeko asmoa izanez gero.

26. artikulua.-

Udal administrazioak luzatuko duen dagokion tituluaren bidez egiaztatuko dira emakidak.

Emakida tituluetan ondoko hauek jasoaraziko dira:

- a) Hilobia indetifikatuko duten datuak.
- b) Titularraren izen-deiturak eta N.A.N.a
- c) Hileta eskubideen kontzeptuan ordaindutako kopuruak.

II. KAPITULUA.- PANTEOIETAN EHZORZTEKO HILOBIRATZE ESKUBIDEA

27. artikulua.-

Udal Hilerrian jadanik badiren panteoientzat lurra emateko hilobiratze eskubidea Hilerria erabiltzen den denbora epe guztian zeharretarako emantzat

ulerutko da, Ordenantza honetan hilobiratze eskubidearen iraungipenari buruz ezarritakoaren kalterik gabe.

28. artikulua.-

Panteoien hilobiratze eskubidearen titularitatea ez dago inolaz ere bizi direnen artean zeditua izan, ondore edo herentziaz soil-soilik transmititu daitekeelarik.

29. artikulua.-

Titularra hiltzen denean, eskubidearen titulartasuna testamenduzko xedapenetan adierazitako oinordekora pasako da, eta testamendu egileak bere ondorengo gisa bi pertsona edo gehiago izendatu balitu, hala beharreko oinordekoek euren artean eskubidea emana izango zaiona izendatuko dute; akordio batera iritsiko ez balira, adin haundieneko hala beharreko oinordekoak edo hala ez balitz adin gehieneko senditarrak oinordetuko du.

III. KAPITULUA.- HILOBIRATZE ESKUBIDEAREN ADJUDIKAZIOA

30. artikulua.-

Hilobi zesio guztiak instantzia bidez eskatuak izango dira, okupatuko duen pertsonaren heriotza gertatu ondoren edo gorpukinen desobiratzea egin ondoren; Udalera zuendua joan beharko duen instantzia. Alkatea izanik adjudikatzeko eskumena izango duen organoa.

31. artikulua.-

Ez da panteoian ehorzteko inolako hilobiratze eskubiderik emango.

IV. KAPITULUA.- TASAK

32. artikulua.-

Hilobiratze eskubideak eta Hilerrian eskainitako zerbitzuek tasak erakarriko dituzte. Ordainketak udal blegoetan gauzatuko dira indarrean dagoen Udal Ordenantzaren arabera.

V. KAPITULUA.- HILERRIAREN IXTEA

33. artikulua.-

Emakida eta 21 eta 27. artikuluetan adierazitako epea hala ezarrita badago ere, beste edozein arrazoi dela eta, aipatutako epea amaitu aurretik hilerria itxi beharko balitz, dagozkion eskubideen titularrak kalteordaindu ahal izango dira, epea amaituzeko beretzen den denboraren arabera, nahiz eta kalte-ordaina kalkulatzeko ordaindutako tasaren zenbatekoa besterik ez den kontuan hartuko, errentariak edo emakidadunak exekutatutako obra edo instalazioei dagokiena aintzat hartu gabe.

VI. KAPITULUA.- HILOBIRATZE ESKUBIDEAREN GALERA EDO IRAUNGIPENA

34. artikulua.-

Ondoren datozen kasuetan hilobiratze eskubidearen galera edo iraungipena dekretatuko da eta dagokion emakida Udalari itzuliko zaio:

- a) Panteoiak hartzen dituen eraikuntzaren narriadura egoera dela eta, aldez aurreko txosten teknikoaren bidez deklaratu, eta titularrari hura konpondu eta egokitzeko adierazitako epea ez betetzeagatik, aldez aurretik espedientea tramitatu eta interesatuari entzun ondoren.
- b) Eskubidea eman zeneko epeak igarotzeagatik.
- c) Dagozkion epeen barruan eskubideak edo tasak ez ordaintzeagatik.
- d) Titularrak espreski uko egiteagatik.
- e) Berrogei urtetan inor ez hilobiratu izanak hilobia abandonatutzat emateko arrazoia izango da.

Iraungipena deklaratzeko arrazoiak daudenean ohartarazi egingo zaie interesatuei titularrari edo, ez balego, onuradunari dei eginez. Helbidea ezaguna ez denean, deia legeria honen arabera egingo da: Administrazio Publikoetako Errejimen Juridiko eta Prozedura Administrazio Komunen azaroaren 26ko 30/92 Legeko 59.4 artikulua. Deia jaso ondoren, iraungipena eta ondoriozko kontzesio itzulerarako arrazoiak desagerrarazteko 30 egun izango ditu.

Lehen adierazitako e) kasuan, presuntzioa deuseztatzeko 30 egunetako epean hurrengo hau egiaztatu beharko du: Onuradunik baduela.

Interesatuak desagertarazten ez baditu iraungipen arrazoiak eskubidearen iraungipena deklaratu da eta, ondorioz, kontzesioa Udalari itzuliko zaio.

35. artikulua.-

Hilobiren baten aurri egoera edo abandonua deklaratzeko titularraren ehorzketa eskubidearen iraungipena ekarriko du. Aipatu titularrak ez du kalte ordainik jasoko desehorzketa, ehorzketa edo hilobia botatzeagatik. Era berean, aurri deklaratzeko ez dio eskubiderik emango hilobi eraketagatik kalteordainik jasotzeko, ezta aipameneko eskubidearen iraupen epea amaitu gae edukitzeagatik ere. Aurri egoera edo hilobiaren abandonua deklaratu ondoren, udalak eskuduntza duten Osasun Zerbitzuen baimena lortu eta gero, hilotzen edo gorpu atalen desehorzketa aginduko du, berehala lur emateko eskubidea duen titularrak erabakitako tokian. Tokia zehazten ez bada, ehorzketa hilobi komunean egingo da. Udalak, bere kargura, berehala bota egingo ditu apameneko hilobiak.

AZKEN XEDAPENAK.-

Arautegi honetan aurrikusten ez denaren aurrean, errejimen lokaleko lege arauari eta hileta polizia sanitarioz dauden arauari jarraituko zaie.

HILETA ZERBITZUAK ETA UDAL HILERRIAN EMAKIDAK EMAN ETA ERABILERA PRIVATIBOAK EMATEAREN TASAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

1. Artikulua.- XEDAPEN OROKORRAK

Udal honek, Hileta zerbitzuei eta Udal Hilerrian emakidak eman eta erabilera pribatiboak ematearen Fiskal Ordenantza Arautzailea ezartzen du, Errejimen Lokaleko apirilaren 5eko 7/1985 Legearen 106. artikulua emandako ahalmenez baliaturik eta uztailaren 5eko 11/1989 Foru Dekretuaren 20tik 27rarteko artikuluekin bat etorriz, honako baldintzetan arautuko delarik:

2. Artikulua.- EGITATE EZARGARRIA

Udal hilerriko hurrengo zerbitzuei ezarriko zaie Tasa:

- a) Gorputzen eta gorpuzkien hilobiratze, leku aldatze, eta horrela zerbitzuen erabilerari.
- b) Hilobien eta gorpuzkien kaxen kontzesioari.
- d) Hildakoen osasunketa zaingorako araudiaren arabera egoki diren edo doakionaren eskabidez baimentzen diren beste edozein zerbitzuei.

3. Artikulua.- SUBJETU PASIBOA

Kontzesio edo zerbitzu eskatzaileak dira subjeto pasibo zergadunak. Kontzesio edo zerbitzu eskatzaileak eta emandako baimenaren jabeak dira zergadun moduan, subjeto pasiboak.

4. Artikulua.- TRIBUTO KUOTA

Zerga ezarpena hurrengo taulaz arautuko da:

EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA	NITXOAn	Lan egunean	220,98 €
--------------------------	---------	-------------	----------

EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA		Jai egunean	258,55 €
EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA	PANTEOIA	Lan egunean	319,50 €
EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA		Jai egunean	373,81 €
EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA	LURREA	Lan egunean	319,50 €
EHORZKETA ETA EXHUMAZIOA		Jai egunean	373,81 €

NITXOA IXTEKO TAPA 34,20 €

Kopuru hauek BEZ barne dute.

4.1. Hilobi eta gorpuzkien kaxen baimen ematea:

a)	Hilobi erabilpena 10 urtetarako baimen ematea	60,00 €
b)	Gorpuzkien kaxak 20 urtetarako uztea	60,00 €
	Plaka	30,00 €

5. Artikulua.- ZERGAREN SORTZAPENA

Aurreko atalean adierazitako zergen tasak, egindako lanengatik edo emandako kontzesio edo baimen bakoitzeko kitatuko dira.

6. Artikulua.-

- 1.- Subjetu pasiboek behar duten zerbitzuaren eskaera egingo dute.
- 2.- Zerbitzu bat eskaini edo gauzatu orduko, aurrez jakitera eman eta bere banakako kitapena egingo da. Diru bilketa Orokorraren Araudiak ezartzen duen epean eta moduan, Udal Diruzaintzan ordaindu dadin.
- 3.- Hilerriaren arduradun denak, aurreko artikuluan adierazten denaren ondorioetarako, hilerro, tasa hau ezarri behar zaien zerbitzuen zerranda eman beharko dio Udal Administrazioari.

Hilaren 5. eguna baino lehenago eman beharko dio zerrenda hori, argi eta garbi azaldu beharko duelarik, nor eskatu duen zerbitzu hori eta ze motatakoa den zehaztuz.

7. Artikulua.-

Ez ordaintzeak galerak eta honek sor ditzazkeen isunak, Foru Dekretuko Ordainketa Orokorren 77. artikulua dioenaren arabera gauzatuko dira.

Guzti hau, Gipuzkoako Hazienda Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.4 artikulua agindutakoa betez argitaratzen da, guztion jakinerako eta artikulua horretan aurriztatu diren gainerako ondorioetarako.

Foru Arau horren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzetan egindako finkatze eta aldaketak onartzen dituzten erabaki horien kontra, interesatuek tarte jarri ahal izango dute errekurso Kontentzioso-Administratiboa Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Horren kalterik gabe eta aipatu artikulua emandako baimenarekin bat, interesatuek jarri ahal izango dute, hala nahi badute eta bide Kontentzioso-Administratiboa hartu aurretik, Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurreko erreklamazioa, horretarako hilabeteko epea dutelarik, argitalpen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasita.

4.- AZTINONDO FRONTOIAKO TEILATUA BERRITZEKO BALDINTZA PLEGUEN ONARPENA

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA, "LIZARTZAKO AZTINONDO PILOTALEKUAREN ESTALKIA BERRITZEA" PROIEKTUAREN OBRAK LEHIAKETA IREKI BIDEZ KONTRATATZEA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren gaia, "Lizartzako Aztinondo Pilotalekuaren Estalkia Berritzea" Proiektuaren Obrak Enkante Bidez Kontratatzea. Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2.- OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea, 3 hilabete. Zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epe hori.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzunkizunei aurre egin beharko dire, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren Prezioa 98.000,00 € izango da, BEZ barne. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lehiatzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioarenak oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lehiatzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

4.- FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

5.- NOLA ORDAINDU

Obra burutuak aldizka ordainduko dira, egiaztagiriak egindakoa. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek.

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez dabidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

7.- BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, ere gain hartutako beharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du. Berme horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren edo, egoki denean, enkantearen oinarritzko aurrekontuaren %4 izango da, hau da, 3.920,00 € Nolanahi ere, esleipena lortu duen enpresariaren proposamena, hasiera batean, ausarkeria-ustearen menpe egon bada, behin betiko bermearen zenbatekoa kontratuaren prezioaren edo enkantearen oinarritzko aurrekontuaren %20 izango da, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 36.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamabost egunekoa izango da, kontratuaren esleipena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 35.1 artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako testu bateginaren 47. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

8.- KONTRATUA BURUTZEA

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra, kontratuaren

burutzapena, eta hori egutegiko hamabost eguneko epean izan beharko da, kontratuaren esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunetik kontatzen hasita.

Kontratua esleipendunaen gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen 144. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira:

- a) agiri honetan ezarritako baldintzak;
- b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta
- c) Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoak eta lege hori garatzeko Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9.- ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzunkizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak ere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

11.- KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, behar berriak edo ustegabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 149.e artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu. Esleipendunak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

12.- OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak esleitzailaren esku utzi dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera, 1 urteko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legea eta lege horren Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak zkatuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak

kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrakesleitzabilearen esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

13.- ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZA BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,12 euro kontratuaren prezioaren 601,01 euroko.

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

14.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 111 eta 149. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) heri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16.- ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena enkante ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipena hurrengo baremoen arabera egingo egingo da:

- Prezio txikiena: 50 puntu.
- Lizartzako udalean egindako lan eskarmentua: 30 puntu.
- Kontratuaren exekuziorako proposamen honena: 20 puntu.

17.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute. Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 18. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo, baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena frogatu

beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

18.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Udaletxeko Idazkaritza.

EGUNAK: Astelenetik Ostiralera.

ORDUA: Goizeko 8:00tatik, 14:00ra.

EPEA: Egun baliodunetan, lehiaketa honen iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegiko 15 eguneko epean, iragarki ori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztatgiria bidali beharko dio Kontratazio-organoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidaltzen badu, baliozkoa izan dadin, herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Lehiatzaileek bi kartazal (A eta B) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "LIZARTZAKO AZTINONDO PILOTALEKUAREN ESTALKIA BERRITZEA"ren OBRAK ENKANTE IREKI BIDEZ KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen

izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetua egon beharko dute.

“A” kartazalaren azpititulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”. Hona hemen “A” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze-edo aldaketa-eskitura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko enbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskitura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna jarduteko gaitasuna dela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztatzea aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.
- c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztatzeak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.
- d) Ekonomi Jaurderen gainera Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo

EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

- e) Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 16 eta 17 artikulutan ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.
- f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.
- g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

“B” kartzalaren azpтитulua hau izango da: “DIRU-PROPOSAMENA”. Bertan aurkeztu beharreko proposamena honako eredu honen arabera egingo da:

DIRU-PROPOSAMENA

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak:, Helbidea Posta Kodea:, NAN.
....., Telef:

Ordez kariaren datuak: (Egonez gero)

Izen-abizenak:, Helbidea Posta Kodea:,
NAN.edo IFK....., Telef:

Lizartzako Aztinondo Pilotalekuaren Estalkia Berritzea Obrak, kontratatzeko asmoz Lizartzako Udalak dei egindako enkantearen berri izan dudala, hona hemen nire

ADIERAZPENA

- 1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudula:€ (BEZ) barne. Prezio horren %, hau da,€ BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:
- 2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.
- 3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

..... 2007koren ... a

Izenpea

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

19.- AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazal" sailkatu egingo du. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81.

artikuluari eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Ildo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Araudiaren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean. Eraberean, lehiatzaileek aurkeztutako agiritan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, agiri honen 18. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala) jendaurrean irekiko dira proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean, goizeko bederatzitan, postaz bidalitako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, Herri Administrazioen Kontratuari buruzko Legearen Araudi Orokorrean xedatutakoa beteko da.

Ondoren, eta goki diren txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

20.- ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Esleipena, gehienez, hogeitun eguneko epean egingo da, diru-proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita. Esleipena egin aurretik, esleipena hartzeko proposatuta dagoen lehiatzaileak egiaztagiria aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betriki dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu. Bost egun

baliokiduneko epea izango du hori egiteko, jakinarazpen egokia jaso eta biharamunetik hasita.

Kontratazio organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipenaren berri emango zaio esleipendunari eta honek, egutegiko hamabost eguneko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, honako hauek egin beharko ditu:

- a) Behin betiko bermea, eta egoki bada, berme osagarria jarri.
- b) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, gastuak ordaindu.
- c) Administrazio honen bulegoetara etorri, proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta ziunketa-akta izenpetzeko.
- d) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzen.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

21.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, II.

Liburuko I. Tituluan ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agir honetan zehaztutakoa nagusituko da.

22.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontraturik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Aztinondo Frontoiako Teilatua Berritzeko Baldintza Pleguen proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

5.- HERRIKO ARGITERIAREN ZUTABE BURUAK ALDATU KUTSADURA LUMINIKOA SAIHESTEKO. BALDINTZA PLEGUEN ONARPENA

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA, "LIZARTZAKO HERRIKO ARGITERIAREN ZUTABE BURUAK ALDATZEA KUTSADURA LUMINIKOA SAIHESTEKO" PROIEKTUAREN OBRAK LEHIAKETA IREKI BIDEZ KONTRATZEA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren gaia, "Lizartzako Lizartzako Herriko Argiteriaren Zutabe Buruak Aldatzea Kutsadura Luminikoa Saihesteko" Proiektuaren Obrak Enkante Bidez Kontratzea. Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da

eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

2.- OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea, 3 hilabete. Zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epe hori.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatik erantzunkizunei aurre egin beharko dire, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren Prezioa 65.854,24 € izango da, BEZ barne. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lehiatzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioarenak oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lehiatzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

4.- FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

5.- NOLA ORDAINDU

Obra burutuak aldizka ordainduko dira, egiaztagiriak egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek.

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez dabidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

7.- BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak, ere gain hartutako beharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du. Berme horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren edo, egoki denean, enkantearen oinarrizko aurrekontuaren %4 izango da, hau da, 2.634,17 €. Nolanahi ere, esleipena lortu duen enpresariaren proposamena, hasiera batean, ausarkeria-ustearen menpe egon bada, behin betiko bermearen zenbatekoa kontratuaren prezioaren edoenkantearen oinarrizko aurrekontuaren %20 izango da, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 36.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamabost egunekoa izango da, kontratuaren esleipena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 35.1 artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako testu bateginaren 47. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

8.- KONTRATUA BURUTZEA

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra, kontratuaren burutzapena, eta hori egutegiko hamabost eguneko epean izan beharko da, kontratuaren esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunetik kontatzen hasita.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo

kalteak izaten baditu, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen 144. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira:

- a) agiri honetan ezarritako baldintzak;
- b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta
- c) Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoak eta lege hori garatzeko Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9.- ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzunkizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak ere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo

seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

11.- KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, behar berriak edo ustegabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunakez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 149.e artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu. Esleipendunak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

12.- OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak esleizaitzailearen esku utzi dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera, 1 urteko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legea eta lege horren Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak zkatuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrakesleizaitzailearen esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

13.- ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZA BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,12 euro kontratuaren prezioaren 601,01 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

14.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 111 eta 149. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) heri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16.- ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena enkante ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipena hurrengo baremoen arabera egingo egingo da:

- Prezio txikiena: 50 puntu.
- Lizartzako udalean egindako lan eskarmentua: 30 puntu.
- Kontratuaren exekuziorako proposamen honena: 20 puntu.

17.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute. Heri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 18. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo, baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

18.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedienteak, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoak ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Udaletxeko Idazkaritza.

EGUNAK: Astelenerdik Ostiralera.

ORDUA: Goizeko 8:00tatik, 14:00ra.

EPEA: Egun baliodunetan, lehiaketa honen iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunerik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegiko 15 eguneko epean, iragarki ori argitaratu eta hurrengo egunerik kontatzen hasita.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epe amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio Kontratazio-organari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidaltzen bada, baliozkoa izan dadin, herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Lehiatzaileek bi kartazal (A eta B) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "LIZARTZAN HERRIKO ARGITERIAREN ZUTABE BURUAK ALDATU KUTSADURA LUMINIKOA SAIHESTEKO"ren OBRAK ENKANTE IREKI BIDEZ KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetua egon beharko dute.

"A" kartazalaren azpititulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- h) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- i) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze-edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko enbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna jarduteko gaitasuna dela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.
- j) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar du, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 20. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.
- k) Ekonomi Jaurderen gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.
- l) Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 16 eta 17 artikulutan

ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

- m) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.
- n) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

“B” kartzalaren azpтитulua hau izango da: “DIRU-PROPOSAMENA”. Bertan aurkeztu beharreko proposamena honako eredu honen arabera egingo da:

DIRU-PROPOSAMENA

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak:, Helbidea Posta Kodea:, NAN.
....., Telef:

Ordez kariaren datuak: (Egonez gero)

Izen-abizenak:, Helbidea Posta Kodea:, NAN.edo
IFK....., Telef:

Lizartzako Herriko Argiteriaren Zutabe Buruak Aldatu Kutsadura Luminikoa Saihesteko Obrak, kontratatze ko asmoz Lizartzako Udalak dei egindako enkantearen berri izan dudala, hona hemen nire

ADIERAZPENA

- 4) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudula:€ (BEZ) barne. Prezio horren %, hau da,€ BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da:
- 5) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.
- 6) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

..... 2007koren ... a

Izenpea

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

19.- AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazal" sailkatu egingo du. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Ildo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Araudiaren 22. artikuluan xedatuta

dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean. Eraberean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik badago, agiri honen 18. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" kartazala) jendaurrean irekiko dira proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean, goizeko bederatzitan, postaz bidalitako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean xedatutakoa beteko da.

Ondoren, eta goki diren txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

20.- ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Esleipena, gehienez, hogeitun eguneko epean egingo da, diru-proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita. Esleipena egin aurretik, esleipena hartzeko proposatuta dagoen lehiatzaileak egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betrik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu. Bost egun baliokiduneko epea izango du hori egiteko, jakinarazpen egokia jaso eta biharamunetik hasita.

Kontratazio organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipenaren berri emango zaio esleipendunari eta honek, egutegiko hamabost eguneko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, honako hauek egin beharko ditu:

- d) Behin betiko bermea, eta egoki bada, berme osagarria jarri.
- e) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, gastuak ordaindu.
- f) Administrazio honen bulegoetara etorri, proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta ziunketa-akta izenpetzeko.
- g) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

21.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, II. Liburuko I. Tituluan ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agir honetan zehaztutakoa nagusituko da.

22.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontraturik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Lizartzan Herriko Argiteriaren zutabe Buruak Aldatu Kutsadura Luminikoa Saihesteko Obren Baldintza Pleguen proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

6.- KREDITU ALDAKETA 1/2007

Lizartzako Udal honen 2007ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 139.584,24 €-tako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoaren Kontuhartzailatza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

7.- UDAL LANDALUR ONDASUNEN INBENTARIOA

Alkate-Lehendakaria den Joseba Egibar Artola jaunak adierazten du:

Lizartzako Udalabatzak 1995ean Herri Ondasunen Inbentarioa onartu zuen. Inbentario honetan, Udal jabetza duten lurak jasotzen ziren, Lizartzako mendien ikerketa sakon bat egin ondoren.

Lan hori abiapuntutzat hartuta, eta kontuan izanik Lizartzako lur higiezinetan ematen diren ezaugarriak, jabetzaren eta erabilpenaren artean nahasketak eman direlarik, Herri lurren inbentario eguneratzea erabaki da. Horretarako eta 1995an egindakoan oinarrituz, Ainara Agirregabiria Larrañaga, Nekazaritza-Ingeniari Teknikoak, Lizartzako Herri Lurren azterketa osatu du.

Inbentario honek, Lizartzaren Udal jabetzako Lur higiezinak, jasotzen ditu, partzelaka. Lur hauek hiru arlotan sailkatzen dira: Ondazilegiak, Garolekuak eta Herri lurak.

Fitxa bakoitza, 1986ko Toki-Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 20. artikuluan agertzen diren datuak ditu, poligonoa, partzela, ze izenarekin ezagutzen den, mugak, azalera, kokapena, probetxapena, ondasunaren izaera, hirigintz kalifikazioa, baloraketa data eta balore katastrala.

Aipatutako Erregelamenduaren 29. artikulua agintzen duen bezala, fitxa bakoitzak partzela bakoitzaren planoak jasotzen ditu.

Horrekin batera, fitxa bakoitzak sailaren jatorria ezagutarazten du, eta Ondazilegi eta Garolekuen kasuan, lurren erabiltzaileak ezagutarazten ditu, eta baita erabiltzailearen baserriaren datuak jasotzen ditu, nahiz eta azken hauek inbentarioaren xedearekin bat ez egin. Ala ere komenigarria ikusi da, kasu hauetan, datu hauek sartzeari, lehen aipatutako erabilpena eta jabetzaren arteko nahasketen jatorria eta zioa hobeto ulertzeko.

Lizartzako Herri Lurren Inbentarioa eguneratua onartzeko ahalmena Udaltzako du, 1985eko apirilak 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legea 22.2 d) artikuluan arautzen duen bezala. Hasierako onarpena eman eta gero, hilabeteko jendeaurreko informazio epea eman behar da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egunkari batean publikatuz.

Lizartzako Herri Lurren Inbentarioa onartzeko proposamena aztertu ondoren, bilkuran diren denen aldeko botoekin honako hau onartzen dute:

- 1.- Ainara Agirregabiria Larrañaga nekazal injeniari teknikoak eginiko Lizartzako Herri Lurren Inbentarioari haserako onarpena ematea.
- 2.- Hilabeteko epean jendaurrean erakusgai jartzea dokumentazioa, nahi duenak alegazio edo iradokizunak aurkeztu ditzan. Lendaurrean erakusgai jarriko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintziako egunkari batetan ere iragarkia argitaratuz.

8.- LIZARTZAKO ETXEBIZITZA TASATUEN ORDENANTZA ARAUPETZAILEA

Alkateak, hitza harturik, Lizartzako Etxebizitza Tasatuen Ordenantza Araupetzailerik aurkeztu du, bere onarpenerako, eta literalki honela dio:

LIZARTZAKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

Lizartzako Udalak jarrera aktiboa izan behar du biztanleentzako etxebizitza egokien beharrari eta arazoizko prezioen beharrari erantzuteko garaian. Izan ere, etxebizitza da Lizartzako gizarte arazo garrantzitsuenetako bat.

Etxebizitzaren arazoa, funtsean, prezioa da. Azken urteotan etxebizitza librean prezioak etengabe egin du gora, eta, ondorioz, premiazko neurriak hartu behar dira, egoera interes orokorrerako larria izan baino lehen.

Baina, horrez gain, sustapen libreko etxebizitzaren prezioak gora egiteak eragina du bazterkeria bikoitzean egoteko gero eta arrisku handiagoa duten gizarte sektoreengan: Ez dute etxebizitza librea erosteko behar adina dirurik, eta, era berean, ez dute babes ofizialeko etxebizitza izateko aukerarik, erkidegoko arautegian ezarrita dauden gehieneko diru sarrerak gainditzen dituztelako. Horregatik, beharrezkotzat jo da babes publikoko etxebizitza mota berria sortzea, babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarrita dauden diru sarrerak baino pixka bat altuagoak dituzten pertsonentzako. Bestalde, babes ofizialeko etxebizitza eskuratu ahal izateko baldintza ekonomiko altuenak betetzen dituen hainbat pertsonak interesa izan dezake etxebizitza babestua erosteko, garestixeagoa baita, baina nolana ere merkatu libreko etxebizitzak baino askoz merkeago.

Berriki onartu den Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Lege berriak (2006ko ekainaren 30ekoa) figura hori azaltzen eta arautzen du, orain ezar dadin ahalbidetzen duen oinarriko erregimen juridikoari dagokionez.

Gainera, udalak etxebizitza gaietan duen eskumena eta autonomia onartzen da, ez soilik sustapenari dagokionez, bai eta tokian arautzeari dagokionez ere. Hain zuzen ere, lege berriak udalei ahalmena eman die Udal ordenantzen bitartez udal etxebizitza tasatuen erregimen juridikoa gara dezaten.

Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Lege berrian (2006ko ekainaren 30ekoa) honako hau dago jasota, Zortzigarren Xedapen Gehigarrian:

4. Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira udal etxebizitza tasatutzat (UET): Euskal Herriko udalek ezartzen dituztenak, dagokion udal ordenantzaren bidez erabakita eta ordenantza horretan beren babes publikoko araubidea erregulatuta.
5. Udalaren etxebizitza tasatua ezartzeko eta erregulatzeko udal-ordenantzak gauza hauek zehaztuko ditu:

Etxebizitzaren eta erantsien ezaugarriak.

Ezartzen diren udal babeseko araubideak eta, hala badagokio, araubide orokorreko eta araubide bereziko modalitateak. Araubide berezikoak, inola ere, araubide tasatuko babes ofizialeko etxebizitzak ordezkatu ahal izango ditu, 80. artikuluan xedatzen den bezala.

Etxebizitzon eskurazaileak, eta etxebizitzok esleitzeko prozedura. Horri dagokionez, publikotasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bete beharko dira nahitaez.

Salbuespen gisa, sustapen bakoitzetik etxebizitza-kopuru bat bereiztea erabaki daiteke, tokiko administrazioek beharizan sozialei alokairu babestuen bidez edo prekarioan lagata erantzuna eman diezaaien. Horrez gainera, beste bizileku bat emateko espedienteetarako ere bereizi ahal izango dira, goragoko taldetik kanpo baitaude.

6. Etxebizitza tasatuak eta araubide bereziko udal etxebizitza tasatuak saltzeari dagokionez, baldin eta 80. artikuluan finkatutako gutxieneko estandarrak betetzeko kontatzen badute, gehienezko prezioak ezin izango du gainditu araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioa bider 1,70 indizea. Legez edo erregulamenduz aldatu arte, etxebizitza horien onuradunen gehienezko diru-sarrerak ezin izango dute gainditu araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean duden gehienezko diru-sarrerak bider 1,30 indizea. Nolanahi ere, udalak bestelako parametro batzuk ezarri ahal izango ditu araubide orokorreko udal etxebizitza tasatuetarako.

Halaber, 2/2006 Erkidego Legean honako hau ere badago jasota (16.1 artikulua): «Udalaren hirigintza plangintzaren bidez, etxebizitzak babes publikoko araubide bati atxikita eraikitzeke kalifikatu ahal izango dira lursailak. Betiere, ordea, legearen 80. artikuluan aurreikusita dauden gutxieneko estandarrak eta kopuruak betetzeko behar den lurzoru kalifikazioa egin beharko da gutxienez».

16. artikuluko 1. atalaren amaieran, honako hau dago jasota: «Kalifikazio egintzan, lurzoru horretarako izendatutako babes mota zehaztu beharko du hirigintza antolamenduak».

Azkenik, nabarmentzekoa da lege horren Zortzigarren Xedapen Gehigarrian, 7. idatz-zatian, honako hau dagoela jasota: «Babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzek, Babes Ofizialeko Etxebizitzek (BOE) nahiz Udal Etxebizitza Tasatuek (UTE), etxebizitza babestuaren kalifikazio iraunkorra edukiko dute» eta, «ondorioz, eskualdaketarako gehienezko prezioa ezarriko zaie bere erregulazio arauan eta haiek lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea edukiko du, lehenik, administrazio jarduleak eta, betiere, modu subsidiarioan Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak».

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruei eta Hirigintzari buruzko Lege horrek eskumena ematen diolarik, Lizartzako Udalak honako hau onartu du:

LIZARTZAKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUA ARAUTZEKO **UDAL ORDENANTZA**

1. artikulua. XEDEA.

Udal ordenantza honen xedea Lizartzako Udal Etxebizitza Tasatuen (UTE) babes publikoko erregimena ezartzea da.

Lizartzako udal etxebizitza tasatuen babes publikoaren erregimena ezartzen da figura horretarako 2/2006 Legean (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, 2006ko ekainaren 30ekoa) jasota dagoena garatzeko.

2. artikulua. UDAL ETXEBIZITZA TASATUAREN KONTZEPTUA.

Lizartzako udalerrian, udal etxebizitza tasatutzat hartuko dira, saltzeko edo alokatzeko prezioa mugatuta dutenez eta ordenantza hauetan ezarritako

gainerako betekizunak betetzen dituztenez, Udalbatzak halakotzat jotzen dituen etxebizitzak.

Udal etxebizitza tasatuen izaera etxebizitza bakoitzari atxikitako garajeetara eta trastelekuetara ere hedatzen da.

Udal etxebizitza tasatuek titularren edo maizterren ohiko etxebizitza iraunkorra izan behar dute, eta inolaz ere ezin zaie beste pertsona batzuei laga, eta ezin dira hutsik utzi edota bigarren etxebizitza gisa edota bizitegitarako ez diren bestelako erabileretarako erabili.

Udal etxebizitza tasatuak hirigintza plangintzan berariaz erabilera horretarako kalifikatutako lurretan nahiz prezio mugarik ez duten bizitegitarako lurzoruetan susta daitezke.

3. artikulua. MOTAK.

Lizartzako udal etxebizitza tasatuak bi eratakoak izango dira:

1. Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuak (UETO).
2. Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuak (UETB).

Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuek babes ofizialeko etxebizitza tasatuak ordeztuz ditzakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean (2006ko ekainaren 30ekoa) jasota dauden gutxiengoko estandarrak betetze aldera.

4. artikulua. LIZARTZAKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN BALDINTZA OROKORRAK.

Lizartzako udal etxebizitza tasatuek ezin izango dute 90 m² (s) baino gehiagoko azalera erabilgarria izan; salbuespena izango dira, bereziki familia ugariarentzat direnak izanik, 120 m² (s) edo gutxiagoko azalera dutenak. Sustapen bakoitzean, halako etxebizitzak izango dira etxebizitza kopuru guztiaren 100etatik 5, gehienez ere.

Udal etxebizitza tasatu guztiek aparkaleku plaza eta trastelekua izango dute atxikita. Bi horien azalera ezingo ditu izan, hurrenez hurren, 30 m² (s) eta 10 m² (s) erabilgarri baino gehiago. Etxebizitzari atxikiak direla jaso beharko da Jabetza Erregistroan.

Esandako azalerei aldaketa txikiak egin daitezke, promozio bakoitzaren ezaugarrien arabera, beti Udal onarpena beharko duelarik,.

Udal Etxebizitza Tasatuek, garaje eta trastelekuekin batera, autonomia erkidegoko Administrazioak Babes Ofizialeko Etxebizitza Tasatueterako ezarritako baldintza teknikoak zein diseinuko baldintzak bete beharko dituzte, eta, baldintza horiek ezartzen ez diren bitartean, Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzari eskatzen zaizkienak bete beharko dituzte.

5. artikulua. ERREGIMEN OROKORREKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN BALDINTZA ZEHATZAK

Udal Etxebizitza Tasatu guztietarako izaera orokorrarekin ezarrita dauden baldintzez gain, Erregimen Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 1.- Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen eta haiei atxikitako garajeen eta trastelekuen gehieneko salmenta prezioak ezingo du gainditu 2 indizea, edozein Administrazioak sustaturiko etxebizitzetarako behin behineko udal kalifikazioa lortzeko unean, indarrean den erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez. Udalak eratu eta lagatako azalera eskubide baten ondorioz enpresa publikoek edo partikularrek sustatzen dituzten etxebizitzek ere baldintza hori bete beharko dute. Sustapen pribatuko etxebizitzaren kasuan 2,2 indizea iritsi ahalko da.
- 2.- Alokairuaz den bezainbatean, erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen urteko errenta, etxebizitza horien gehieneko salmenta prezioaren % 2,5 izango da gehienez.

- 3.- Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gehieneko diru sarrera haztatuak, Euskal Autonomia Erkidegoko araudian jasotakoarekin bat kalkulatorik, ezin dira 1,5 indizea baino handiagoak izan, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean diren gehieneko diru sarrerei dagokienez.
- 4.- Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gutxieneko diru sarrera haztatuak ezin dira izan gizarte etxebizitzak (erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak) eskuratzeko ezarrita dauden gehieneko diru sarrerak baino txikiagoak.

6. artikulua. ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN BALDINTZA ZEHATZAK

Udal etxebizitza tasatuetarako oro har ezarrita dauden baldintzez gain, erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- 1.- Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen (garaje eta trasteleku atxikiak barne) gehieneko salmenta prezioa, babes ofizialeko etxebizitza tasatuei autonomia erkidegoan aplikagarri zaien arauak ezarriko dute. Nolanahi ere, ezingo dute gaintu 1,7 indizea, udal kalifikazioa eskuratzeko den unean, indarrean den erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez.
- 2.- Alokairuaz den bezainbatean, erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen urteko errenta, etxebizitza horien gehieneko salmenta prezioaren %2,5 izango da gehienez.
- 3.- Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gehieneko diru sarrera haztatuak, Euskal Autonomia Erkidegoko arautegian jasotakoarekin bat kalkulatorik, ezin dira 1,3 indizea baino handiagoak izan, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean diren gehieneko diru sarrerei dagokienez.

4.- Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gutxieneko diru sarrera haztatuak ezin dira izan gizarte etxebizitzak (erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak) eskuratzeko ezarrita dauden gehieneko diru sarrerak baino txikiagoak.

7. artikulua. UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK SUSTATZEKO ERAK.

Lizartzako udal etxebizitza tasatuak, edozein motatakoak izanik ere, jabetza osoaren erregimenean, errentan edota lurrazal-eskubidearen lagapenaren bidez Udalak berak susta ditzake edota beste administrazio publiko batzuek nahiz haien tresna erakundeek, eta kooperatibek edota enpresa pribatuek bere titularitateko lursailetan.

Beste Administrazio, edota bitartezko entitate, kooperatibak edo enpresa pribatuak, beren lursailetan sustatutako etxebizitza tasatuak, ezingo dira jabetza eman, hirigintza kalifikazio edo udalarekin sinatutako hitzarmena dela eta beste gauza bat ezarri bada.

Bai Udalak modu osoan edo zati batean utzitako lursailetan, enpresa publiko edo pribatuek alokairuan sustatutako etxebizitza tasatuak, edota udalak zuzenean sustatuta, alokairu egoerak 15 urteko gutxienezko iraupena izango du. Epea pasata, maizterrari besterentzea posible izango da, beti ere etxebizitza tasatuen esleipeduna izateko baldintzak betetzen jarraitzen badute, eta 2/2006 legean ezarritako lehentasunez erostea eta atzera eskuratzeko eskubideak kontuan hartuz.

8. artikulua. UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ONURADUNENTZAKO ETXEBIZITZA BEHARRAREN BALDINTZA.

Udal etxebizitza tasatuaren onuraduna izan ahal izateko, bizikidetzaren unitateko kideetako batek, gutxienez, adin nagusikoa izan behar du. Ez da bizikidetzaren unitate bezala kontuan hartuko adiskidetasun soila edo elkarbizitzaren ondorioz eratua izan dena. Bizikidetzaren unitateko adin nagusiko guztiek, lerro zuzeneko ondorengoak izan ezik, etxebizitzaren jabeak izan behar dira.

Udal etxebizitza tasatuaren onuradun guztiek (onuraduntzat, bizikidetza unitateko kide guztiak hartuta) bete beharko dute beste etxebizitzarik ez izatearen baldintza, eta ezingo dute etxebizitzarik izan ez jabetzan (jabetza osoa edo lurrazalekoa), ez bizi arteko gozamen eskubide errearen bidez. Hori guztia beteko da etxebizitzaren beharra definitzen duen autonomia erkidegoko arautegian zehaztuta dauden salbuespenak aintzat hartuta edota lehendik duten etxebizitzak betetzen ez dituen gutxieneko etxebizitza programan jasota dauden baldintzak indarrean den araudiaren arabera.

Udal etxebizitza tasatuaren onuraduna izan ahal izateko, bizikidetza unitateko kideetako batek, gutxienez, Udalak sustapen bakoitzerako ezartzen dituen gutxienezko izateko bizitzeari eta errolda edo lan lotura buruz ezarritako baldintzak bete beharko ditu

9. artikulua. KALIFIKAZIOA.

Bai erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuaren kalifikazioa, bai erregimen bereziko kalifikazioa Alkatetzaren ebazpenaren bidez ezarriko dira, edota hala badagokio, Tokiko Gobernu Batzarraren bidez, sustatzaileak eskatuta.

Hirigintza plangintzan berariaz erabilera horretarako kalifikaturiko lurzoruetan sustatzen diren etxebizitzaren behin behineko kalifikazioarekin batera eraikitzeko baimena eskuratu behar da, eta ez da baimen hori emango ez baldin bada eskatzen edota kalifikazioa ez bada egokitzen jotzen.

Behin behineko kalifikazioaren dokumentuan etxebizitza bakoitzaren gehieneko salmenta prezioa zehaztuko da, garaje eta trasteleku atxikiak aintzat hartuta.

Lehen erabilerako hirigintza lizentzia eskuratzeko, beharrezkoa izango da, alde aurretik edo aldi berean eta sustatzaileak hala eskatuta, erregimen orokorreko edo erregimen bereziko udal etxebizitza tasatu direla adierazten duen behin betiko kalifikazioa eskuratzeko. Horrez gain, egiaztatu egin beharko da etxebizitza eta bere erantsiak behin behineko kalifikazioan zehaztutakoaren arabera egin dela.

Hirigintza plangintzak berariaz erabilera horretarako kalifikatu ez dituen lurzoruetan sustatzen diren etxebizitzak udal etxebizitza tasatutzat jo ahal izango dira edozein unetan, eta kalifikazioa lortutakoan, udal etxebizitza tasatuen erregimen juridikoa aplikatu ahal izango zaie. Kasu horretan, kalifikazioa lortzeko ez da oztopo izango autonomia erkidegoko Administrazioak babes ofizialeko etxebizitza tasatuetarako ezarritako baldintza teknikoak eta diseinuko baldintzak ez betetzea, edo, halakorik ezean, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritakoak.

Udalak, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza gaian eskuduntza duen sailari, egindako sustapen eta etxebizitzetara eman diren behin behineko edo behin betiko kalifikazioen berri emango dio, jakinerazpen formal baten bidez.

10. artikulua. UDAL ETXEBIZITZA TASATUAREN KALIFIKAZIOAREN ONDORIOAK

Legeak xedatutakoaren arabera, udal etxebizitza tasatu gisa kalifikatutakoak, garaje eta trasteleku atxikiak barne, etxebizitza babestutzat kalifikatuko dira behin betiko. Ondorioz, behin betiko egongo dira lotuta eskualdatzeko gehieneko prezioari (ordenantza honetan zehazten da), eta lehenik eta behin, Udalaren edo administrazio jardulearen alde, eta, nolana ere, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren alde, subsidiarioki).

Bizien artean bigarrenez edo aldi gehiagotan eskualdatutako udal etxebizitza tasatuen gehieneko prezioa izango da hurrengo irizpide hauek ezarritakoan kalkulaturakoa:

Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen kasuan: Ezingo dute gainditu 2 indizea, eskualdatzeko unean indarrean den erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez. Sustapen pribatuko etxebizitzaren kasuan 2,2 indizera iritsi ahalko da.

Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuek ezingo dute gainditu babes ofizialeko etxebizitza tasatuetarako autonomia erkidegoaren araudian ezarritakoa. Nolanahi ere, ezingo dute gainditu 1,7 indizea, eskualdatzeko unean indarrean den erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez.

Etxebizitzak lurrazaleko jabetzaren erregimenean lagatzen baldin badira, bigarren eskualdatzeetan nahiz geroagokoetan, prezioa hau izango da, gehienez, hasierako erosketan ordaindutakoa, KPI-ren (kontsumo prezioen indizea) aldaketak aplikatuz eguneratuta, eta honako kopuru hauek kenduta:

Urteko %0,5 lehen 30 urteetan.

Urteko %1 hurrengo 20 urteetan.

Urteko %2,6 azken urteetan.

Ondasun higiezinan egin diren hobekuntzek eta mantentze lanek (halakorik egin bada), handitu egingo dute besterentze prezioa, baldin udal Administrazioak ondorio horietarako aurrez onartu baditu, haien balioztapena eta balio galera zehaztuta.

11. artikulua. LEHENTASUNEZ EROSTEA ETA ATZERA ESKURATZEA.

Udal etxebizitza tasatuen titularrek, edozein dela ere haien erregimena, Udalari edo administrazio jarduleari eta autonomia erkidegoko Administrazio orokorrari –lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen titular subsidiarioa den aldetik– jakinarazi beharko die besterentzeko erabakia. Lehentasunez erosteko eskubidea gauzatu ahal izan dadin, honako hauek ere adierazi beharko ditu: Aurreikusitako prezioa eta ordainketa modua, aurreikusitako eskualdatzearen gainerako oinarrizko baldintzak, eta jakinarazpenak jasotzeko helbidea. Eskubide hori gauzatu ahal izango da bi hilabeteko epean, jakinarazpena Udalaren edo administrazio jardulearen erregistroan eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren erregistroan sartu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aurreko paragrafoan adierazitako epean ez bada lehentasunez erosteko eskubidea gauzatzeari buruzko berariazko ebazpenik jakinarazi, aurreikusitako besterentzea libreki gauzatu ahal izango da.

Artikulu honetan eskatutako jakinarazpena ez bada egin, legez nahitaezkoa den artikulu horretako edukiren bat ez bada adierazi, edo eskualdaketarengatik ordaindutako diru kopurua txikiagoa bada edo baldintzak kostu-bide gutxiagokoak badira dagokion administrazioari jakinarazitakoak baino, Administrazio horrek atzera eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izango du bi hilabeteko epean, besterentzearen ezagutza osoa izan eta hurrengo egunetik hasita.

12. artikulua. KONTRATUEN ONIRITZIA.

Udal etxebizitza tasatuak lagatzeko kontratu guztiek, erabateko jabetzakoak, lurrazaleko jabetzakoak direnek zein alokairuan daudenek, udal administrazioaren oniritzia jaso beharko dute. Oniritzirik gabe, ezingo dira Jabetza Erregistroan sartu.

13. artikulua. ERREGISTRATZEA.

Udal etxebizitza tasatu gisa behin betiko kalifikazioan jasoko da etxebizitzaren -eta etxebizitzari atxikitako garajeen eta trastelekuen- erregimena eta gehienezko prezioa. Udalak kalifikazio hori jakinaraziko dio dagokion Jabetza Erregistroari, eragindako ondasunetan jasota gera dadin eta erregistroaren publikotasuna era egokian egin dadin. Alde batetik, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideari (Udalaren edo administrazio jardulearen alde, edo subsidiarioki, autonomia erkidegoko Administrazio orokorraren alde) aplikatuko zaio erregistroaren publikotasuna. Bestetik, ordenantza honetan ezarritako eskualdatzeko gehienezko prezioari era iraunkorrean atxikita egoteko duten mugari aplikatuko zaie.

14. artikulua. UDAL ETXEBIZITZA TASATUA ESLEITZEKO PROZEDURA.

Udal etxebizitza tasatuak udal sustapenetan edo sustapen pribatuetan esleitzeko prozedura zozketa bidezkoa izango da. Lizartzako Udalak ezarriko ditu zozketa horretan parte hartu ahal izango duten, hurrengo artikuluan aipatutako udal erregistroan sartuta dauden eta ordenantza honetan zein deialdi bakoitzerako onartutako oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituztenak, deialdi bakoitzerako publizitate eta gardentasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak beti bermatuz. Nolanahi ere, zozketa deialdia jendaurrean jarri beharko da. Hori dela eta, zozketa eta haren oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharko dira, eta zozketa bera udaleko idazkariaren aurrean edo ordezeko gisa fede-emaile publiko denaren aurrean. Prozedura honi berari jarraitu ahal izango zaio Udalarekin hala hitzartutako sustapenetan.

Udala ez beste sustatzaile publikoen kasuan, haiek ezarriko dute esleipen prozedura, betiere publizitate eta gardentasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betez, eta beti ere notarioaren bidez.

Udal etxebizitza tasatuak esleitzeko egingo diren zozketen oinarrietan, kupoak ezarri ahal izango dira. Horrek erraztu egingo du etxebizitza kopuru jakin bat etxebizitza eskuratzeko zailtasun edo beharrizan bereziak dituen gizarte talderen bateko pertsoneri esleitzea.

Salbuespen gisa, sustapen bakoitzeko zozketatik etxebizitza kopuru bat bereiztea erabaki daiteke, Udalak beharrizan sozialei alokairu babestuen bidez edota prekarioan lagata erantzuna eman diezaien. Hori guztia bizilekua berriro hartzeko eskubideari kalterik egin gabe; horretarako etxebizitzak ez dira zozketatuko.

Udal etxebizitza tasatu baten onuradunaren bizikidetza unitateak familia ugariaren legezko muga gainditzen badu, haren etxebizitza trukatu ahal izango du (jabetzan, lurrazaleko jabetzan zein alokairuan izan), sustapen berri bakoitzean talde horrentzat gordetako etxeetan erregimen bera duen batez. Jabetzaren edo lurrazaleko jabetzaren kasuan, etxebizitza eskuratzen duenak udal etxebizitza tasatu berriaren eta utzitakoaren arteko prezio aldea ordaindu beharko du, ordenantza honen 11. artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera

eguneratuta. Familia ugarien kopurua handiagoa bada talde horrentzat gordetako etxebizitzena baino, etxebizitzak zozketatu egingo dira.

15. artikulua. BIZILEKUTZAT HARTZEKO BETEBEHARRA.

Salerosketako kontratuetan zein alokairu kontratuetan baldintzazko klausula bat gehituko da. Klausula horren arabera, onuradunak etxebizitzan bizitzeko eta han erroldatzeko betebeharra hartzen du. Horretarako, bi hilabeteko epea izango du, dokumentua sinatzen duenetik zenbatzen hasita. Baldintza hori betetzen ez bada, kontratua suntsitu egingo da, eta etxebizitzaren jabe edo onuradun izatea kenduko zaio onuradunari.

16. artikulua. BIZILEKUTZAT HARTU GABEKO ETXEBIZITZEN DESJABETZEA.

Udal etxebizitza tasatuen onuradun orok du esleitutako etxebizitzan bere ohiko bizilekua ezarri eta mantentzeko betebeharra. Onuradunen batek betebehar hori betetzen ez badu, Udalak gauzatu egingo du nahitaez desjabetzeko eskubidea, indarrean den legedian onartua.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Desjabetze edo berdin-banatzeko prozesuetan balioztapenak egiteko, lur hiritartuaren kostuaren gehieneko jasanarazienak ezingo du gainditu udal etxebizitza tasatuaren gehieneko salmenta prezioaren %30a. Beste daturik ezean, balio berekotzat joko dira hiritartu gabeko luraren balioa eta etxebizitza horien hiritartze kostuak.

LEHEN AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza honek aurreikusi ez duen orori dagokionez, eta ordenantzaren garapenen edukiak ere kontuan hartu beharko direla, autonomia erkidegoan babes publikoko etxebizitzetarako buruz indarrean den araudia aplikatuko da.

BIGARREN AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau indarrean sartuko da haren behin betiko onarpena eta testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean. Eta haren ondorioak hedatuko dira etxebizitza tasatuetarako erreserbak aurreikusi dituzten hiri antolamenduko planetara, aurrez izapidetuta eta onartuta egon arren.

Lizartzako Udal Etxebizitza Tasatua arautzeko Udal Ordenantza, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

9.- TELEASISTENTZIA ARAUTZEKO UDAL ERREGELAMENDUA

ZIOEN AZALPENA

Teleasistentzia zerbitzuaren helburua arrisku, babesik eza, mendekotasun edota urritasuna duten pertsonak beren etxean jarraitzea da, beren eskaerari erantzunez eta beren autonomia eta segurtasuna indartuz. Gizarte izaera duen zerbitzu tekniko honek erabiltzaileak larrialdien arretarako zerbitzuekin lotzen ditu, esparru horretan dauden komunitate baliabideak mugiaraziz.

2001.eko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak, gizarte zerbitzuei dagozkien eginkizunak zehaztekoak, lehenengo paragrafoaren 4.1.2. eta 3. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, teleasistentzia udal eskumeneko zerbitzu bat da. Beraz, bidezkoa da zerbitzua arautzea Toki Erregimeneko Oinarriak onartzeko 1985.eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikuluan aurreikusitakoa betez, erregelamendu hau onartuz.

Hala ere, mendekotasna duten adinekoen zein urritasua duten zerbitzuko erabiltzaileen arreta eta zaintza Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa izanik, eta, bestalde, zerbitzua lurralde osoan eraginkortasun eta berdintasunez ematea ziurtatzea komenigarri egiten duten arrazoi teknikoak izanik, erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Barne Sailarekin harremanetan dagoenez (SOS-Deiak larrialdi zerbitzuan sartuz), Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lizartzako

Udalaren artean, foru erakundeak teleasistentzia zerbitzuaren kudeatzeko gomendioa hitzartu egiten du.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa kontuan hartuta, Lizartzako udalean teleasistentzia zerbitzuaren araudia udal erregelamendu honetan onartzen bada ere, aipatutako gomendioaren iraunaldiaren araberakoa izango da.

Erregelamendu honen edukiari dagokionez, hiru titulutan egituratzen da:

Lehenengo tituluak erregelamenduaren xedea ezartzen du eta teleasistentziaren edukia definitu eta ezartzen du.

Bere edukian, erabiltzaileek sortutako larrialdiaren ondoriozko zerbitzuaren kudeaketa integrez gain, sistema erabili duten pertsonekinengingo den jarraipena jasotzea ere azpimarratzekoa da.

Bigarren tituluak, bere lehenengo kapituluan, teleasistentzia zerbitzuaren prestaketarekin lortu nahi diren helburuak zein horretarako aurrera eraman behar diren eginkizunak adierazten ditu.

Bigarren kapituluak teleasistentzia zerbitzuaren alderdi subjektiboa estaltzen du, erabiltzaileen esparrua arautzen baitu.

Zerbitzuaren onura esleitzeko, bosgarren artikuluan deskribatzen diren egoeretakoren batean egotea aitortzea, ez, ordea, ezaugarri pertsonalen bat izatea, izango da ezaugarri erabakigarria. Beraz, pertsona esparru zabalago baten alde, modu objektibo batean hartzen da gaia.

Ondoren, sarbide baldintzak eta zerbitzutik salbuesteko kasuak deskribatzen dira, baita zerbitzuaren erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak ere.

Hirugarren kapituluan prozedura arautzen da, hasieran udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuan eskaera egiten denetik, Gipuzkoako Foru

Aldundiak hornitu arte, baita zerbitzuaren prestaketan izandako gertaerak aurreikusiz ere.

Hirugarren tituluan zerbitzuaren prestaketako erregimen ekonomikoa aurreikusten da ondoriozko erabiltzaileen ekarpen sistemarekin, gehienetan, gaur egun dagoen ekarpen legea errespetatzen duena, hain zuen ere.

Arauzko testua aplikazio zuzenerako beharrezkoak diren xedapen gehigarri, indargabetzaile eta azken xedapenarekin ixten da.

LEHENENGO TITULUA.- ZERBITZUAREN XEDEA, EDUKIA ETA DEFINIZIOA

1.-Artikulua.- Xedea

Erregelamendu honen xedea Lizartzako udalean Teleasistentzia zerbitzua arautzea da.

2. Artikulua.- Definizioa eta edukia

Definizioa: Teleasistentzia zerbitzua gizarte izaera duen zerbitzu tekniko bat da, eta, erabiltzaileei telefono linearen bidez eta komunikazioen eta informatika ekipamendu berezi bat erabiliz arreta zentro batekin harremanetan jartzea ahalbidetzen die. Zentro hori berez edo bestelako baliabide komunitario batzuk mugiaraziz aurkeztutako gizarte larrialdi edo behar egoeraren araberako erantzuna emateko bereziki prestatutako pertsonalak zainduta dago.

Edukia: Teleasistentzia zerbitzua urteko egun guztietan eta eguneko 24 ordutan emango da, eta, gutxienez, ondorengo prestazioak jasoko ditu:

Erabiltzaileen helbidetan kokatutako teleasistentzia ekipoen instalazioa eta mantentze lana.

Erabiltzaileei ekipoen erabilera eta ezaugarriei buruzko arreta eta informazioa ematea.

Erabiltzaileen balizko larrialdi egoeren arreta (osasun egoerak edota bestelakoak: sutea etxetan, lapurretak, etab.), bidezko baliabide komunitarioak mugiaraziz.

Gizarte arretako oinarrizko baliabideetarako orientazioa.

Larrialdi kasu batengatik artatutako erabiltzaileen egoeraz interesa agertzeko telefono dei baten bidezko jarraipen berezia.

Urtean bi telefono dei gutxienez erabiltzaile guztiei beren helbidean instalatutako equipoaren funtzionamendua zein pertsonak erabiltzeko gaitasuna egiaztatzeko. Dei horretan bertan, erabiltzaile fitxan jasotako datuak egiaztatutako dira.

II. TITULUA.- TELEASISTENTZIA ZERBITZUA

I. Kapituluak.- Helburuak eta eginkizunak

3. Artikulua.- Helburu orokorra eta helburu bereziak

Teleasistentzia zerbitzuak orokorrean erabiltzaileen bizitza kalitatea hobetzea du helburu, beren autonomia eta segurtasunaren sentimendua indartuz.

Era berean, teleasistentzia zerbitzuak honako helburu bereziak ditu:

Adin edo urritasun arrazoiak direla eta, beren familia edo gizarte ingurunean gizarte eta osasun egoera arriskugarrian dauden pertsonen iraupena eta integrazioan laguntzea, deserrotze eta egoitza zerbitzuetan beharrik gabe sartzea saihestuz.

Beren etxean erabiltzaileen autonomia eta independentziaren ahalik eta mailarik handiena eman eta mantentzea.

Adineko edota urritasuna duten pertsonen zaintza bere gain hartzen duten familiei laguntzeko bide bat izatea.

Erabiltzaileei larrialdi kasuetan berehalako segurtasun eta arreta eskaintzea, eta, erabiltzailearen arretarako bestelako beharren kasuetan ahalik eta azkarren erantzutea.

Erabiltzaileei arreta integrala eskaintzea, erabiltzaileen eta gizarte eta asistentzia sarearen arteko etengabeko lotura bermatuz, gai diren erabiltzaileei zein erabiltzaileak laguntzeko sare informalarik antzemandako egoeraren berri emanez.

4. Artikulua.- Eginkizunak

Teleasistentzia zerbitzuak bi eginkizun ditu, funtsean:

- 1.- Sorospena ematea: Erabiltzaileak larrialdi egoeran daudenean, berehala ematen die behar den laguntza.
- 2.- Lasaitasuna ematea: Erabiltzaileei, behar larriaren kasuan soilik ez, baizik eta, larrialdiak ez izanda ere, beste pertsona batzuen babesaren behar duten beste hainbat egoeratan ere, laguntza jasoko dutela ziurtatzen die, horrekin eguneroko garapenean lasaitasun eta segurtasuna emanez.

II. Kapituluak.- Erabiltzaileei buruz.

5. Artikulua.- Erabiltzaileak

Teleasistentzia zerbitzuaren erabiltzaileak bakarrik bizi diren edo egunaren denbora gehiena bakarrik igarotzen duten pertsonak izan daitezke, arrisku, babesik eza, mendekotasun edota urritasun egoeran egonik, eta, hala balegokio, beren zaintzaileak ere izan daitezke.

Era berean, teleasistentzia zerbitzuaren erabiltzaileak udaleko gizarte zerbitzuen iritziz, babesik eza, mendekotasun edota urritasun egoeran dauden beste pertsona batzuk ere izan daitezke, eta, egunaren denbora gehiena bakarrik bizi edo egoten ez badira ere, bizikidetza multzo edo unitate baten zati direnak, bere kideak, era berean, babesik eza, mendekotasun edota urritasun egoeran egonik.

6. Artikulua.- Teleasistentzia zerbitzuko sarbide baldintzak

Eskatzaileen sarbide baldintzak honako hauek izango dira:

1.- Lizartzako udalerrian erroldatuta egotea.

Aurreko baldintza betetzen ez badute ere, honako egoeretakoren batean dauden pertsonak eskuratu ahal izango dute zerbitzua:

- a) Lizartza-ra lekualdatzen den pertsona, jatorrizko udalerrian, lekualdatzeko datara arte, teleasistentzia zerbitzuaren onuraduna izanik. Eskatzeko unean, Lizartza-n erroldatu beharko da eta jatorrizko udalerriko Gizarte Zerbitzuetako ziurtagiria aurkeztu beharko du. Bertan, teleasistentzia zerbitzuko erabiltzailea dela jaso beharko da. Gainera, lekualdatzeko unera arte zeukan teleasistentzia ekipoari baja eman beharko dio.
- b) Udaleko gizarte zerbitzuen ustez, arrisku handi edo aparteko egoeran egotea.

2.- Bere etxean telefono linea edukitzea.

3.- Teleasistentzia ekipoa zuzen eta egoki erabiltzeko gai izatea.

4.- Larrialdi kasuetan, mugiarazitako baliabide komunitarioetako pertsonalari eta, era berean, ekipoen instalazio, mantentze lan eta kentzeko kasuetan, zein zerbitzua prestatzea ezartzen duen gizarte eta osasun egoera arriskugarriaren jarraipen eta egiaztapen jardunen kasuetan, gizarte

zerbitzuek hala eskatuta, bidalitako pertsonalari bere etxeko sarbidea ahalbidetzeko konpromisoa bere gain hartzea.

5.- Udaleko gizarte zerbitzuei erabiltzaileei dagokien espedientean jasotako datu eta dokumentuak, osasunekoak barne, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari, Osakidetzari, eta, hala balegokio, teleasistentzia zerbitzuaren erakunde esleipendunari, eman ahal izateko baimena ematea, 1. Eranskinean ezarritako baldintzatan zerbitzua zuzen eta egoki ematearren.

6.- Gizarte zerbitzuei aitortutako datu ekonomikoak egiaztatzeko eta zerga izaerako eta gizarte segurantzakoekin parekatzeko baimena ematea, hala balegokio, ezartzen den ekarpenaren kitapenari ekitearren.

7. Artikulua.- Bazterketak

Teleasistentzia zerbitzuaren erabiltzaile izaeratik teleasistentzia ekipoa zuzen eta egoki erabiltzeko ezintasuna edo zailtasun larria duten pertsonak baztertuko dira.

8. Artikulua.- Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak

Teleasistentzia zerbitzuaren erabiltzaileek Erregelamendu honetan araututako prestazioak jasotzeko eskubidea izango dute, eta, oro har, 2004.eko apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuz onartutako "EAEko gizarte zerbitzuetako erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren kartan eta iradokizun eta kexuen erregimenean adierazitako guztiak".

9. Artikulua.- Zerbitzuko erabiltzaileen betebeharrak

1.- Teleasistentzia zerbitzuaren erabiltzaileen betebeharrak, oro har, apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuz onartutako "EAEko gizarte zerbitzuetako erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren kartan eta iradokizun eta kexuen erregimenean adierazitako guztiak" izango dira.

2.- Era berean, eta, bereziki, teleasistentzi zerbitzuaren erabiltzaileak honako honetara behartuta egongo dira:

Teleasistentzia zerbitzua eman eta zuzen eskaintzeko behar diren datu guztiak zuzen ematera zein horien egiazkotasunaz arduratzera ere.

Udaleko gizarte zerbitzuei zerbitzu prestaketaren baldintzetan zein dagokien ekarpenaren kitapenean eragina izan dezaketen inguruabar pertsonaletan eta ekonomiko eta ondarekoetan ezein aldaketaren berri ematera.

Larrialdi egoera baten aurrean, bertarutzen diren baliabide komunitarioetarako pertsonalari sarbidea erraztera.

Udaleko gizarte zerbitzuetako pertsonalari, hala balegokio, teleasistentzia zerbitzuaren garapenaren erakunde esleipenduneko pertsonalari, etxeko sarbidea erraztera, aldez aurretik, bisitaren berri emanda, ekipoak instalatu, mantendu eta kentzeari ekitearren, baita zerbitzuaren prestaketa dakarren gizarte eta osasun egoera arriskugarriaren jarraipen eta egiaztapen jardunak egiteari ere.

Gehienez ere, bere izenean alta emandako teleasistentzia ekipo bakar bat edukitzera.

Inola ere, teleasistentzia ekipoaren instalazio eta programazioa ez manipulatu ez aldatzera, eta erabilera baldintza onetan mantendu zein jasotako erabilera jarraibideen arabera erabiltzera ere.

Jasotako teleasistentzia zerbitzuaren prestazioengatik dagokion ekarpena ordaintzera, arautzen duen araudiari jarraiki.

Oinarrizko gizarte zerbitzuari bajaren berri eman zein hilabeteko epean teleasistentzia ekipoari itzultzera ere.

III. Kapitulua.- Sarbide prozeduraz

10. Artikulua.- Eskaera eta dokumentazioa

Interesatuak edo beren ordezkariak dagokien gizarte zerbitzuko bulegoetan aurkeztuko dituzte eskaerak, horretarako normalizatutako inprimakia betez (Erregelamendu honen 2. Eranskina) eta ondorengo dokumentazioa erantsiz:

Eskaera egiten duenaren, eta, hala balegokio, bere ordezkariaren NAREN fotokopia.

Eskaera egiten duenaren osasun txartelaren fotokopia.

Osasun fitxa. Bertan, osasun arriskuaren balizko egoera jaso behar da, zerbitzua eskatzen duen pertsonak dituen patologiei dagozkien diagnostikoen zein larrialdi egoera batean garrantzitsuak diren tratamenduen deskribapenarekin.

Urritasuna duten pertsonari dagokienez, dagokien minusbaliotasun ziurtagiria erantsi beharko da, zerbitzua eskatzen duen pertsonarena zein urritasun egoera alegatzen duten bizikidetzak multzo edo unitatea osatzen duten beste pertsonena ere.

Eskatzaile bakoitzeko familia unitatearen datu ekonomikoak buruzko dokumentazioa, erabiltzailearen ekarpena kalkulatzeko erabakigarria dena, erregelamendu honen 18. artikuluan aurreikusitakoa betez.

Erregelamendu honi dagokionez, familia unitatea indarrean dagoen araudian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudiak definitutakoa da, edota, edonola ere, haren ordezkaria dena.

Aipatutako dokumentazioak honako hauek jasoko ditu:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortzenaren fotokopia. Edo, hori izan ezean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzena aurkezteko salbuetsita egoteko ziurtagiria.

Eguneratutako diru-sari edota bestelako prestazio edo diru sarreren ziurtagiria, higigarrien zein higiezinen kapitalaren errendimenduak barne.

Zerbitzuarengatik ekarpenaren ordainketaren banketxe helbideratzeko dokumentua.

Eskaera egiten duen pertsonak bere egoera baloratzerik nahi ez badu, edo modu frogagarrian justifikatzen ez badu, bere egoera ekonomikoa itxaron zerrenda osatzen duen baremoan, halako zerrenda balego, kontuan hartua izateari edota ezarritako laguntzei uko egiten diela iritziko da. Beraz, zerbitzu prestaketarako ezarritako ekarpena ordaintzera derrigortuta egongo da bere osotasunean, eta hori dagokion dokumentuan formaldu egingo du.

Eskaerak erabat formaldu ezean edo exijitutako dokumentuetako baten bat falta izanez gero, eskaera egiten duenari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, errekerimendua egingo zaio, hamar egun balioduneko epean, falta/k zuzendu eta derrigorrezko dokumentuak erants ditzan, horrela egin ezean, bere eskaera atzera egintzat joko dela adieraziz, aldeztu aurretik ebazpena emanda. Ebazpena aipatutako 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, 42. artikuluan aurreikusitako baldintzatan eman beharko da.

Beharrezkotzat jotzen den kasuetan, prozeduran zehar edozein unetan eskaera egiten duenari egokitzat jotzen den dokumentazio osagarri guztia eskatu ahal izango zaio, baita formaldutako eskaeren ebazpenari ekiteko egokitzat jotzen den beste edozein baldintza edo tramite betetzeko ere, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 76. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, horretarako, jakinarazpen egunaren ondoren kontatzen hasita, hamar egun balioduneko epea emanez, berariaz horrela egin ezean, aurreko atalean finkatutako baldintza berdinetan, bere eskaera atzera egintzat joko dela ohartaraziz.

Eskaera egiten duenak Udalari kudeaketa egokiak egiteko baimena emango dio, dagozkion datuak egiaztatu edo biltzearren. Datu horiek eskaera egiten duenak erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen egiaztatzeari buruzkoak izango dira soilik, eta, hala balegokio, zerbitzua finantzatzeko baldintza eta baliabide ekonomikoen egiaztapenari buruzkoak.

Datuak faltsutu edota ezkutatzek zerbitzuaren eskatzaile baldintza galtzea ekarriko du, bere gain har ditzakeen erantzukizunen kaltetan gabe.

11. Artikulua.- Eskaerak tramitatzea

Teleasistentzia zerbitzuko sarbiderako, Lizartzako Udaleko sarrera erregistroko eskaerei emandako orden kronologikoa kontuan hartuko da, eta, aurrekontu eza dela eta itxaron zerrenda bat sortuz gero, bosgarren zenbakia duen erregelamendu honen eranskineko baremoaren arabera kudeatuko da.

12. Artikulua.- Espedientea tramitatzea

Behin udaleko gizarte zerbitzuek aurreko artikuluak aipatzen dituen eskaera eta dokumentazioa jasoz gero, eskaera egiten duenaren egoera zein teleasistentzia zerbitzuan jasotzeko edo ez jasotzeko beharra baloratuko dira, erregelamendu honetan jasotako irizpide eta baldintzei jarraiki eta derrigorrezko gizarte txostena prestatuz.

13. Artikulua.- Ebazpena

Behin eskaera aztertu eta baloratuta, eskumena duen udal organora igorriko da, eta hark arrazoitutako ebazpena emango du, eskatutako zerbitzuko sarbidea aintzat hartuz edo ezetsiz.

Ebazpena udal erregistroetakoren batean eskaera jasotzen denetik gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da. Epe hori eskaerak osatzea eskatzen denean eten egingo da jakinarazpenaren eta betetzearen arteko denboran, edo, bestela, emandako epean zehar, edota eskaera egiten

duenaren autonomiaren balorazioari buruz Gipuzkoako Foru Aldundiaren derrigorrezko txostena eskatu behar denean.

Aurreko atalean aurreikusitako epea berriazko ebazpenik eman gabe eta ebazteko betebeharraren kaltetan gabe igarota, eskaera ezetsizat jo ahal izango da, interesatuari aukerako berraztertze errekurtsoa edota administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzea ahalbidetzearen.

Aldeko ebazpenak gutxienez honako edukia izan beharko du:

Prestazioa ematea zerbitzua emateagatiko tarifa eta erabiltzaileari dagokion ekarpen ekonomikoa bereiziz.

Hala balegokio, eskaera Lizartzako Udaleko itxaron zerrendan jasotzea, erregelamendu honetako 5. eranskineko baremoan jasotako lehentasun irizpideen arabera ordenatuta, zerbitzua berehala emateko modurik ez dagoenean.

Aurkako ebazpenak zioak jaso beharko ditu eta bidezkoa izango da eskaera egiten duena honako kasu hauetakoren batean dagoenean:

Erregelamendu honetan jasotako sarbide baldintzak ez betetzea.

Erregelamendu honetan aurreikusitako bazterketak.

Behar bezala arrazoitutako bestelako arrazoiak.

Legeak exijitutako epeetan eta formaltasunez jakinarazitako ebazpenaren aurka, eskumena duen organoaren aurrean aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, edota legez ezarritako epeetan eta baldintzatan, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean zuzenean aurkatu.

Aintzat hartzeko ebazpena Gipuzkoako Foru Aldundiari ere jakinarazi beharko zaio, eta Aldundiak exekutatu beharko du erregistroko sarreraren

orden kronologikoari jarraiki, jakinarazpen datatik kontatzen hasita gehienez 15 eguneko epean, itxaron zerrendan jasotzen ez denean salbu, zerbitzua aurrekontu falta edo ekipo falta dela eta, berehala emateko modurik ez izanda. Eskaera egiten duena ekipoak edota dagokion aurrekontu zuzkidura izan arte egongo da egoera horretan.

14. Artikulua .- Larrialdiko prozedura.

Apartekotasunez, eta, aparteko behar larriaren kasuan, udaleko gizarte zerbitzuek horrela arrazoituta, teleasistentzia zerbitzua berehala emateari ekingo zaio, izaera hori berariaz azaltzen duen dagokion ebazpena emanez.

Udaleko gizarte zerbitzuek Gipuzkoako Foru Aldundiari emateko ebazpena jakinaraziko diote, larrialdiko prozedura bat dela adieraziz, Aldundiak, edonola ere, zerbitzua gehienez ere 24 orduko epean emateari ekin diezaion.

15. Artikulua.- Zerbitzu prestaketaren iraungitzea

Teleasistentzia zerbitzuaren prestaketa honako kasu hauetan iraungi egingo da:

Zerbitzuaren erabiltzaileak uko egiteagatik.

Zerbitzuaren erabiltzailearen heriotza dela eta.

Zerbitzuaren erabiltzailea egoitza batean modu iraunkorrean sartzeagatik.

Erabiltzailea Gipuzkoako Lurralde Historikoko edo kanpoko beste udalerrri batera lekualdatzeagatik.

Erregelamendu honetako 9. artikuluan jasotako erabiltzaileen betebeharrak ez betetzeagatik.

Zerbitzuaren erabiltzaile izaera aintzat hartzea ekarri zuten inguruabarrak aldatzeagatik.

Ezartzen den ekarpenaren ordainketa falta dela eta.

Erabiltzailea bat-batean ezinduta edo teleasistentzia ekipoaren erabilera zuzen eta egokirako zailtasun larrian egoteagatik.

e), f), g), h) eta i) paragrafoetan jasotako kasuetan, erabiltzailea zerbitzuan baja emateari ekin aurretik, derrigorrezko entzunaldi tramitea jakinarazi beharko da, zioak eta alegazioetarako epea adieraziz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 84. artikuluan aurreikusi bezala.

IV. TITULUA.- ZERBITZUKO ERREGIMEN EKONOMIKOA

16. Artikulua.- Teleasistentzia tarifa

Behin zerbitzuaren prestaketaren banan-banakako kostua zehaztuta, aurreko puntuan xedatutakoa kontuan hartuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero dagokion tarifa onartuko du, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean laburpen bat argitaratuz.

2007ko ekitaldian tarifa..... €-tan (..... €) zehazten da, erabiltzaile bakoitzari teleasistentzia aparatua hornitzeko kontzeptuan eta urtero €-tan (..... €) mantentze lanen kontzeptuan.

Tarifa urtero eguneratuko da (urtarrilaren 1etik eragina izanik) Euskal Autonomia Erkidegoko aurreko urtekoarekiko TDA (aurreko abenduaren gainean aplikatutako igoera tasa) aplikatzeari dagokion igoerarekin.

17. Artikulua.- Finantzaketa

Teleasistentziaren kostuaren finantzaketa honako hauen kargura izango da:

Onuraduna: Zerbitzuaren finantzaketan parte hartu beharko du, eskumena duen organoaren ebazpenean ezartzen den kopurua emateko

sinatutako konpromisoa onartuz, dituen baliabide ekonomikoak kontuan hartuz, zerbitzuaren prestaketa abiarazteko eta hitzarmen honetako 4. eranskinean jasotako baldintzatan.

Lizartzako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia: bakoitzak onuradunari ordaintzea dagokion ekarpena kentzean ondorioztatzen den kopuruaren %50eko ekarpena egingo du, hain zuzen ere, zerbitzu prestaketaren kostuari 18. artikulua arabera eta 4.

Eranskinean ezarritako ekarpenaren baremoaren arabera kalkulatuta.

18. Artikulua.- Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena.

Erregelamendu honetan araututako zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzuaren tarifa osoa edo zati bat ordaindu beharko du. Bere ekarpena, aipatutako tarifaren portzentaiaren moduan, espedientea tramitatzean behin kalkulatu da, bere ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta.

Aipatutako ahalmen ekonomikoa zehazteko, familia unitateko kideen per capita errenta kontuan hartuko da. Errentatzat familia unitateko pertsonareneko pertsonen diru sarrera guztiak jotzen dira, hain zuzen ere, honako hauetatik ondorioztatutakoak:

- Lan errendimenduak, gizarte aurreikuspeneko diru-sari eta prestazioak, beren erregimena edozein delarik ere.
- Higigarrien eta higiezinen kapitalaren errendimendua.
- Enpresa edo lanbide jardueren errendimenduak.

Behin ekonomia ahalmena zehaztuta, erabiltzaileen ekarpena 4. Eranskinean ezarritako baremoaren arabera ezarriko da.

Ekonomia ahalmenari buruzko datuak faltsutu edota ezkutatzeko zerbitzuaren eskaeraren artxibatzea ekarriko du, edo iraungitzea emana baldin

bazegoen, egintza horietatik etor litezkeen erantzukizunen kaltetan gabe. Udalak erabiltzaileei nolabaiteko laguntza edo prezioko onura emana dien kasuan, laguntzak emateko udal ordenantzan araututako subentzioak itzultzeko dagokion prozedura abiaraziko da.

Zerbitzuen erabiltzaileek, eta, hala balegokio, beren legezko ordezkariak, Udalari, errentan edota familia unitateko pertsona kopuruan izandako edozein funtsezko aldaketa jakinarazi behar diote, gertatzen denetik kontatzen hasita 30 eguneko epean, baita banako ekarpenaren ezarpenean eragina izan dezaketen gorabehera guztiak ere.

Udal teknikariek erabiltzaile bakoitzarentzako banako ekarpena berrikusi ahal izango dute, ofizioz zein erabiltzaileek edota beren ordezkariak hala eskatuta, ekarpenen aldaketa ekar dezaketen baldintza edo gorabeheretako edozeinetan aldaketaren bat gertatzen denean, eta hurrengo hilabetean izango ditu dagozkion ondorioak.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Erabiltzaileei emateko, Erregelamenduaren beraren laburpen bat prestatuko da.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu honek teleasistentzia zerbitzua eskuratzeko prozedura berezia ezartzen badu ere, hala ere, aurreikusita ez dagoen guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak kontuan hartuko da subsidiarioki aplikatzeko arauditzat.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Erregelamendu honetan xedatutakoaren kontraesanen dauden edo aurkatzen duten maila bereko edo beheragoko arau guztiak indargabetuta geratzen dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA

Lizartzako Toki Gobernuko Batzarrari ahalmena ematen zaio erregelamendu hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren arau guztiak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Erregelamendu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo hamabost egun igarota jarriko da indarrean.

Teleasistentzia Arautzeko Udal Erregelamendua aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

10.- ALKATETZA DEKRETUAK

OBRATAKO BAIMENAK

171/2007 - Juan Manuel Ibarguren Etxeberria, Toki Alai Etxeko teilatu altxatze eta berrikuntza.

184/2007 – Juan San Sebastian Murua, Ostatu Berri ondoan dagoen ubidea hodi bidez bideratu eta estaltzea.

IGOKA – GOIK CALDERERIA Y RECUBRIMIENTOS S.L.

ALKATETZAREN PROBIDENTZIA

GOIK CALDERERIA Y RECUBRIMIENTOS S.L.-k aurkeztu duen, Irunzubi Industrialdea 7 F-Gn kokatuko den, EGITURA ARIN ETA AZALEKO TRATAMENDU GALDERERIA (Calderería de estructura ligera y tratamiento superficial) egiteko Irekiera baimen eskaera ikusirik, 1961eko azaroaren 30eko Araudiko 30. Artikuluak ezartzen duen prozedimendua hasia izan dadila. Horren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- Udal Arkitektoak, Udalean indarrean dauden Araudiekin bat datorren, txostena luzatu dezala.
- 2.- Hori baiezkoa balitz, Erregelamenduaren arabera, prozedurak jarraitu dezala, hamar egunetako epean, Udaletxe eta Gipuzkaoko Aldizkarian argitaratu, eta inguruko bizilagunei, jakineraziaz; epe hori igaro ondoren, Osasun Inspezioa eta Udaleko Zerbitzu Teknikoei pasea izan dadila tokatzen diren txostenak luzatu ditzaten. Txosten hoiekin, Udal Batzarrari pasatzea, ospatzen den lehen bilkuran aztertu dezan. Azkenik, espedientea, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidalia izan dadila, tokatzen den txostena luzatu dezan.
- 3.- 2. apartatuan ezartzen diren tramiteak beterik, kontu eman zaidala; Udaleko Arkitektoak aurkako txostena luzatzen badu ere bai.

BILKURA NAGUSIRAKO DEIA

ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkariak prestatutako espedienteen zerrenda ikusirik, berak lagunduta, eta Antolaketa eta lhardutze Araudiaren 82.1 artikulua, eta arau baterakorrak, ikusirik, ERABAKI DUT:

- 1.- APIRILaren 4an, goizeko 8tarako,** Bilkura Nagusirako deia luzatzea, hurrengo GAI ZERRENDAREKIN:
 - 1.- Aurreko Bilkuretako Akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
 - 2.- UEMA. Estatutuen aldaketa.
 - 3.- Lizartzako Hilerria Emakida Bidez Kudeatzeko Kontratua.
 - 4.- Aztinondo Frontoiaiko Teilatua Berritzeko Baldintza Pleguen onarpena.
 - 5.- Herriko Argiteriaren Zutabe Buruak Aldatu Kutsadura Luminikoa Saihesteko. Baldintza Pleguen onarpena.
 - 6.- Kreditu Aldaketa 1/2007.
 - 7.- Udal Landalur Ondasunen Inbentarioa.

8.- Lizartzako Etxebizitza Tasatuen Ordenantza Araupetzailea.

9.- Teleasistentzia Arautzeko Udal Erregelamendua.

10.- Alkatetza Dekretuak.

11.- Bestelakoak.

2.- Idazkariak, Udaleko zinegotziei deia egiteko, beharrezko diren tramiteak burutuko ditu, erabaki hau beteaz.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko bederatziak direnean.